



ttiipi-ttapa

TOKIKOM

2016ko ekainaren 16a | XXXVI. urtea | 664. zenbakia

erran.eus

Herriko bestak → 10-20

Arizkun, Saldias, Erratzu, Doneztebe eta Senpere

BERA → 21

Altzateko bestak
ekainaren 17tik 19ra

BAZTAN → 43

1.414 lagunek ezetz
Aroztegiako proiektuari

URDAZUBI → 47

Alkerdiko harrobiaren
inguruko azken berriak

Julen ZELAIETA

→ 28



Baztan-Bidasoko

bertsopaper lehiaketa

irabazi du

PILOTA → 52

Herriarteakoaren finalerdian: Doneztebe vs Bera.

Xanta SOUZA SANTOS | Lesakako kirolaria

Marka berria 50 kiloko txingekin

50 kiloko txingak esku banatan hartuta, 6 plaza eta erdi eta 5 zentimetro, edo bertzela erranda, 182,05 metro egin ditu sortzez brasildarra baina azken 19 urteotan Lesakan bizi den Xanta Souza Santosek. Gisa honetara, marka berria ezarri du.

→ 52



ARGAZKIA: IBON ERRAZU URIA



ELKARRIZKETA → 3

50 urte bete ditu Elizondoko Lanbide Eskolak eta urteurreneko ekitaldiak antolatzen ari den lantaldearekin bildu da TTIPI-TTAPA.

ERREPORTAJEA → 4-5

Auzo konpostako etxolen ordeztasun 5. edukiontzia Lesakan

Alkatetza duen Geroa Baik hartu du erabakia baina eztabaida sortu du herrian. Geroa Bai eta EH Bilduko ordezkariekin solastu da TTIPI-TTAPA.



Sanjuan suak

Txarrak kanpora, onak barrenera, sarna fuera! oihiakuz eta su gainetik salto eginez, sanjuan bezpera ospatuko dute ekainaren 23an eskualdeko hainbat herritan.

BERTAKO KOMERTZIOETAN KONTSUMITUZ DENOK IRABAZTEN DUGU



DenokBat  Nafarroako
Gobernua

NIK HERRI
BIZI BAT NAHI
DUT, ZUK?



GAZTE! HERRIKO KOMERTZIOETAN EROSTEAN, HERRIAN LANPOSTU BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEN DUZU

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
**CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean**
hartu duen 111
udalerrien
eremuan ere



Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

50 urteko historia du giblean Elizondoko Lanbide Eskolak. 29 ikaslerekin hasi zuten lehenbiziko ikasturtea 1966an eta geroztik milaka izan dira bertan ikasi duten eskualde-

ko herritarrek. Gaur egun, 127 ikasle daude; Erdi Mailako eta Goi Mailako zikloak ikasten batzuk, Goi Mailarako prestakuntza kurtsoa egiten bertzeak. Eta iaz, ikastetxe integratu

izendatu zutenez langile eta langabetuendako formakuntza ere eskaintzen dute. Iraganik gabe etorkizunik ez dagoenez, 50. urteurrena bertako ikasle guztiekin ospatu nahi dute.

Elizondoko Lanbide Eskolak 50 urte | Urteurreneko ekitaldiak antolatzen ari den lantaldea

«Bertako ikasle izan diren guztiekin ospatu nahi dugu 50.urteurrena»

Eneritz IRAOLA | ELIZONDO

Mende erdia bete duzue. Nolakoa izan da orain arteko bidea?

Eskolak 1966ko Urriaren 13an ireki zituen atea antzinako Tren txikiaren Elizondoko geltokiaren lurretan. Hasiera hartan 29 ikasleri Doikuntza eta Tornuari buruzko ikasketak eskaintzen zitzaizkien. Beranduago administrazio eta metalgintzako adarrak sortu ziren (ofizialia deitzen zena) eta 80. hamarkadako hasieran maestria ere jarri zen (gaur egungo goi maila izanen zena). 90eko hamarkadan Batxilergoko ikasketak ere eskaintzen zirenez, 360 ikasle inguru izatera iritsi zen. Lanbide Heziketako eskola bezala sortu ginen, baina 18 urtez Lekarozko Institutuarekin elkartuta ere egon da, 2014tik aurrera berriz berexita gauden arren. Arazorik haundiena, azken hamarkadan, leku falta izan da. Horren ondorioz, ezin izan dugu eskaintza haunditu eta industrializatuagok dauden lurraldetako eskolen, Iruñea eta Gipuzkoakoak adibidez, eskaintza berdintzeko arazoak ditugu. Hori konpontzeko Hezkuntza saila Iparraldeko Lanbide Heziketako eskola bateratua sortzeko proiektua lantzen ari da.

Zer antolatu duzu urteurrena ospatzeko? Ekitaldiak udan hasi eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Urteurreneko ekitaldiak antolatzen ari den Lanbide Eskolako lantaldea.

datorren ikasturtean zehar luzatuko dira. Gaur guztiak ezin ditugu esan, sorpresaren bat baitago tartean. Baztandarren Biltzarrerako orga berezi bat prestatzen ari gara, Arizkunenean argazki erakusketa bat antolatuko dugu eta eskolan jai egun berezi bat. Antolakuntza lanak bideratzeko Lanbide Eskolako lantalde bat sortu dugu. Dena den, parte-hartzea zabalik dago; norbaitek ikastetxe-ko argazkiak balitu, edo urteurrena prestatzen lagundu nahiko balu, gurekin kontaktuan jartzea nahi genuke. Azken finean, gure zonaldeko pertsona mordoa izan gara Eskolako ikasle eta

EKITALDIAK

«Baztandarren Biltzarrerako orga berezi bat prestatzen ari gara, Arizkunenean argazki erakusketa bat antolatuko dugu eta eskolan jai egun berezi bat. Antolakuntza lanak bideratzeko Lanbide Eskolako lantalde bat sortu dugu baina, norbaitek ikastetxe-ko argazkiak balitu, edo urteurrena prestatzen lagundu nahiko balu, gurekin kontaktuan jartzea nahi genuke».

urteurren hau guztiona dela pentsatzen dugu.

Zein da eskolaren gaur egungo egoera?

Ikasturte honetan 123 ikasle, 27 irakasle, administrari bat eta atezain bat gaude eskolan. Atera itzazue kontuak, 50 urte hauetan inguruko zenbat ikasle izan ditugun! Ikasle hauek osotara 8 taldetan banatuta daude, adar desberdinetan banatuta. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Zikloak eta Goi Mailako Zikloak eskaintzen ditugu, baita Goi Mailarako Prestakuntza kurtsoa ere. Arratsaldean langile eta langabetuendako formakuntza eskeintza zabala ere badago: informatika, men-

pekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko Erdi Mailako zikloa, mekanizazioa, merkataritza eta abar..

Ikastetxe integratu izendatu zaituztete. Zein aldaketa ekarri du?

Praktikoki ikastetxe integratu bezala lan egin izan dugu azken urteetan eta izendapenarekin batera egituratze formal bat eman diote ikastetxeari. Horrenbestez, formakuntza erregulatua az gain ez erregulatua ere eskaintzen dugu, langile eta langabetuentzat kurtsoak eskainiz. Hezkuntza saila garatzen ari den proiektu berrietan ikastetxe kolaboratzaile gara eta nazioarteko elkarlana ere sustatzen dugu. Erasmus European zehar egiten diren praktiken bidez edo lana bilatzeko erraztasunak emanez.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

Eskualde osorako, gaur egungo beharrei erantzuneko dien D ereduak Lanbide Heziketa ikastetxe integratu berria sortzea. Horretarako, azken bi ikasturteetan eskualdeko lanbide heziketa eskaintzen duten ikastetxe, udal, garapen eragile eta hezkuntza departamenduko kideekin elkarlanean ari gara. Nafarroako Gobernuak, lanbide heziketaren aldeko apustu tinkoa egitea premiazkoa da gure eskualdearentzat.

HONDAKINEN KUDEAKETA → EZTABAIDA LESAKAN

Auzo konpostako etxolaren ordeztu edukiontzi marroia paratuko dute Lesakan

Geroa Bairen erabakiak eztabaida sortu du

Arrazoi estetikoak eta higienikoak aipatu ditu Geroa Baik erabakia hartzeko, bai eta hiriaren antolamenduari dagozkionak ere. EH Bilduk, berriz, erabakia ongi hausnartu gabekoa dela uste du eta auzo konpostarekin eredugarri izateko aukera galduko dela.

G. PIKABEA | LESAKA

Konposta izan da oraingoan Lesakako Geroa Bai eta EH Bildu aurrez-aurre paratu dituenak. Geroa Bai buru duen Udalak auzo konpostaren etxolak kentzea erabaki du higie-ne eta estetika kontuak argudiatuz, eta Hiri-antolamenduaren aurka doazela erranez. Edukiontzi marroia- ren alde egin du. Lesakako EH Bilduk, ordea, erabakia «burugogorkeria baten ondorioa» dela uste du, «ongi hausnartu gabekoa da: ez dira objektiboki baloratu sistema honek dituen onurak eta sor ditzakeen kalteak».

Jose Luis Etxegarai (Geroa Bai) alkatearen hitzetan, «Lesakako Hirigintza Plan Orokorren 30. artikuluko 2. kapitulu- an age-

ri da hondakinak biltzeko erabili- ko diren ontziak edukiontziak izan direla eta aparkalekue- tan kokatuko direla. Gainera, Bortzirietako Mankomunitatearen baitan, Lesaka da konpostagailuak herrigunean eta lorategietan dituen herri bakarra. Lorategiak txukuntzen urtean 60.000

euro gastatzen dira eta diru hori gastatu eta konpostagailuak hori kokatzea astakeria bat iruditzen zaigu». Garbi utzi nahi izan du «herriguneko lorategiak garbitu baino ez ditugula egin nahi. Sistema honen aldekoek Etxalarko eredu bezalakoa proposatuko baligute, hau da, herrigunetik eta lorategietatik kanpo konpostagailuentzako tokiak finkatuz, sistema honekin segitzeko gure babes osoa izanen lukete».

EH Bilduko Maider Arrieta zinegotziak, aldiz, estetikarena «guztiz subjektiboa» dela dio. «Geroa Bairen ustez,

edukiontzi gehiago paratzea estetikoagoa izan da». Higie- ne aldetik «sistema hobetu daitekeela» onartu du, «erabiltzaileek egiten duten erabilera hobetuz batez ere, baina ez da inongo saiakerarik egin». Hiri antolamenduaren argudioa «faltsua» dela ere adierazi du: «hainbat plent- tan izan dugu eztabaida hau, idatziz ere galdetu diogu, udal idazkariari ere kontsulta egin diogu eta ondorioa hau da: alka- teak berak onartu bezala, eraba- ki politiko bat da eta aipatu di- tuen arrazoi hauek erabakia jus- tifikatzeko saiakera bat dira».

BOSGARREN EDUKIONTZIA

Lesakako Geroa Baik bosga- rren edukiontzia nahi du: «ja- rri duten herrietan bere eraginkortasuna eraku- tsi duelako. Nafarroan, Euskal Autonomia Erki- degoan, eta urrutirago Katalunian, Murtzian,



LESAKAKO UDAL ORDEZKARIEKIN SOLASEAN



Jose LUIS ETXEGARAI (GEROA BAI)

1. Hondakin kudeaketari dagokionean, legediak finkatutako helburuak lortzeko sistemarik egokiena zein dela uste duzu?

2. Lesakan 244 familiak egiten dute auzo konpos- ta eta 180k etxeko konposta. Nolako kopurua iruditzen zaizu?

1. Sistema guztiak, bakoitza bere toki eta baldintzetan, onak izan daitezke. Batzuk atez atekoarekin alde egiten dute, bertzak batzuk konpostaren alde eta guk bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia deitutakoaren aldeko apustua egiten dugu, martxan da- goen udalerrri aunitzetan eraginkorra dela erakutsi baitu.

2. Matematikak huts egiten ez badidate, bi zifra horien emaitzak dio Lesakako 406 familiek euren hondakin organikoak konpostagai- luetara botatzen dituztela. Eta horiei sakabanatuta bizi eta ikerketan sartzen ez diren 190 familiak gehitzen badizkiegu, 596 dira konposta egiten dutenak. Erdia baino dezente gehiago dira, eta beraz, Euro- pako dekretua betetzen ariko ginateke. Aldiz, Hiri Hondakin- en Man- komunitatearen arabera, birziklatzeko tasa %35ekoa da. Niri zen- bakiak ez zizkit ateratzen, eta hortaz, norbait gezurretan ari da.



Maider ARRIETA (EH BILDU)

1. Helburu nagusia hondakinak murriztea da, gero ahal den heinean berrerabiltzea eta azkenik berrerabili ezin dena birziklatzea. Birziklatze egokia egiteko garrantzi handia du bilketa sistemak. Egokiena zein den era parte hartzailean erabaki beharko genuke, baina jendeak kontziente izan behar du guttieneko batzuk bete behar direla, legeak eskatzen duelako eta bereziki beharrezkoa delako osasun eta ingu- rugiro aldetik. Auzo konposta indartu eta edukiontzi berdera bota- tzen den errefuxa murriztuko duen sistema behar dugu. Guk baditugu ideiak baina herritarren inplikaziorik gabe ez dute ezertarako balio.

2. Emaiza hagitz positiboak izan ditu auzo konpostak, inguruko onenak, eta hori gobernuan dagoen taldeak kontrako jarrera izan due- nean. Pena da horren ongi hasitako bidea bertan behera utzi nahi izatea, auzo konpostarekin eredugarri izateko aukera izan dugu.

Valladoliden, Asturiasen... erabiltzen dute eta datuak ezinhobeak dira. Ez dugu zalantzarik Lesakan ere funtzionatuko duela». Gainera, erabaki hori hartzeko, «legitimatua» sentitzen direla erran digu Etxegarai: «hauteskundeak irabaziz gero, konpostagailuak kendu eta bosgarren edukiontzia paratuko genituela dio gure hauteskunde programa, eta eskaintza honekin gehiago osoalortu genuen. Beraz, legitimatuak sentitzen gara».

Edukiontzi marroia paratuta, bildutako hondakinak Doneztebiko transferentzia plantara joan liratekeela azaldu digu alkateak. «Gai honi aterabidea emateko Hondakinen Partzuergoak Donezteben transferentzia planta bat eraikidu, eta gure ardura hondakinak toki horretan utzita koan bukatzen da, hondakinak konpostatu plantara ailegatu arazita. Planta bat zein berteza nafarguztiok ordaindu ditugu eta Partzuergoa ardura tuko da arazo hau soluzionatzeaz. Ez dugu ulertzen zerbitzu hauek ez erabiltzeko batzuen burugogorkeria».

EH Bildurentzat, «jendeak erabiltzen badu, [edukiontzi marroia] ez da sistema txarra», baina «desabantaila argiak ditu auzo konpostaren aldean. Konpostaren alde «onak» nabarmendu ditu: «lehenik, kontzientziazioa eta inplikazioa. Auzo konpostatu egiten duena kontziente da sortzen ditugun hondakinak arazo bat direla eta birziklatzeko eta zaborra murrizteko erabakia hartzen du. Egiten duten herritarrek borondatez egiten dute, inork behartu gabe, eta erabaki honek onura handiak ditu denentzat, baina inori kalterik egin gabe. Bigarrenik, ekonomikoki sistema-

rik merkeena da zalantzarik gabe, eta gainera, hondakinetatik ongarria lortzen dugu dohainik. Azkenik, ingurugiro ikuspegitik ere sistema onena da, bilketan ez da kutsatzen eta ez da tratamendu zentro batera eraman behar tratatzeko. Modu naturalean bertan egin eta bertan erabiltzen dugu».

Bosgarren edukiontzia erekin birziklatze tasak hobetzea nahiko luketela dio Arrietak, «horretan laguntzeko prest gaude eta gure esku dagoena eginen dugu. Ez dugu gaiaren erabilera politikorik egiteko inongo asmorik». Baina emaitza onak lortzen ez badira, zer gertatuko den galdegin du: «egungo udal gobernuak ez du balorazio objektibo bat egin nahi. Adibidez, nola soluzionatuko dugu edukiontzi berdearen arazoa? Hauetan dena batera botatzea da arazoa, baina alkatea egoskortua dago bosgarren edukiontzia jarri behar dela, honek dena soluzionatuko balu bezala. Ez dute konturatu nahi arazo nagusia jendearen kontzientziazioan dagoela, jendeak ez badu parte hartzen, bosgarren edukiontziek ez dute ezertarako balio».

DATARIK EZ
Geroa Bai ko ordezkariak argitu du lorategi publikoetan dauden konpostagailu «guztiak» kentzeko asmoa dutela. «Hala, herritarrek hondakin organikoak edukiontzi marroietara bota beharko dituzte. Konpostagailuak kendu baino lehen paratuko dira». Aldiz, etxeko konpostatu egiten dutenek «ez dute orain arte bezala segitzeko arazorik izanen. Are gehiago, horretara animatu nahi ditugu». Oraindik ez dakite auzo konpostaren etxolak noiz

SINADURA BILKETA

331 sinadura auzo konpostako postuak ez kentzeko eskatuz



Lesaka Auzo Konpostaren Alde taldeak 331 sinadura bildu ditu Udalaren erabakiaren kontra. Maiatzaren 9an aurkeztu zituen Herriko Etxean eta Bortzirietako Hondakin Mankomunitatean eta Eva Garcia Balaguer Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administraioko zuzendariari ere bidali dizkio. Taldearen erranetan, konpostak alde onak bertzerik ez ditu, «dagoen sistema merkeena delako eta sortzen den zabor kopurua aunitz jaisten delako». Sinadura bilketa «hagitx positibotzat» jo du EH Bilduko zinegotziak: «halako dinamika sortzea, herritarren parte-hartzea eta iritzia ezinbertzekoak baitira». Baina gaineratu duenez, «ez dakit zein eragin izanen duten alkatearen egoskorkeria kontuan hartuta». Alkateak, bere aldetik, erran du «bakoitzak nahi dituen bideak bila ditzakeela bere helburu politikoak lortzeko. Batzuk lau urtetarako programa lantzen dugu eta hauteskundeetara aurkeztzen gara. Bertze batzuek ez dira lau urtetarako programa egiteko gai, eta sortzen den arazo bakoitzarekin espazio politiko tiki bila ibiltzen dira, momentuko protagonistak sentitzeko».



kendu eta edukiontzi marroiak noiz paratuko dituzten: «ez dago gure esku, Hiri Hondakinen Mankomunitatearen esku baizik». Baina herritarrei gai honekin lasai egoteko deia igorri die: «Udalak zabalik dituen bideetatik informazioa eska dezakete lasai ederrean. Herritarren zerbitzura gaude eta momentu oro emateko prest».

Arrietak, berriz, herritarren nahia errespetatzea «garrantzitsua»

dela azpimarratu du, «batez ere, horrelako emaitza onak ematen dituen sistema babesterakoan». Bere irudiko, «etorkizunean erronka handiagoei erantzun beharko diegu denen artean eta horretarako ezinbertzekoa izanen da elkarren artean adostasunak bilatzea, interes partikular eta politikoak alde batera utziz».

LESAKAKO DATUAK	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA FAMILIAK	Urtean birziklatzen dutena
Auzoko konpostatu					7	223	9	5	244 (Lesakako %19,05)	31,77 tona materia organiko
Etxeko konpostatu	22	16	25	3	9	99	3	3	180 (Lesakako %14,05)	43,07 tona materia organiko

Etxeko konpostarako lehen ontziak 2009an banatu zituzten Lesakan eta auzoko konpostarekin 2013an hasi ziren. Gaur egun, Lesakako 424 familiak egiten dute konpostatu, 180k etxekoa eta 244k auzokoa. Herrian barna dauden zortzi konpostaguneen bitartez egiten dute auzoko konpostatu. Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak emandako datuen arabera, auzo konpostarekin 43,07 tona materia organiko birziklatzen dituzte lesakarrekin urtean. Etxeko konpostarekin, berriz, 31,77 tona egiten dituzte. Guztira, 74,84 tona. Konpostatu eginez birziklatzen dena sortzen den materia organikoaren %17 inguru da.

**Nire txanda**

Jon ABRIL

Bestarik besta

Besta egin eta etxerako bidean doan neska baten istorioa, *Au bout de la rue*, ikusi berri dut sare sozialetan. Lagun batek erran dit gure errealtatetik aski urrun dagoela hori, gurean ez dela horrelakorik, gure bestak ez direla matxistak. Ikusarazi diot gure herriko bestak ere joera matxistaz beterik daudela. Matxismoa gure gizartean hain barneratua dagoela, ikusi ere ez dugula ikusi nahi. Galdetu diot ia zenbat mutilek sentitu duten beldurra besta girotik etxerako bidean. Ia zenbat neska ausartu den jazarpena salatzeri, nahiz hori jasan. Ia besta egunean nork prestatuko dituen etxeko otorduak berak besta egiten duen bitartean. Nork garbitu eta plantxatuko dizkion arropak. Plazan dantza "ofizialean" nor aterako den. Eta esku-pilota partidetan nor ariko den. Edo aizkoran. Eta ostatu bateko xokoan eskua nork nori sartuko dion, bertzearen onespunik gabe. Hori normala dela erantzun dit. Eta ziplo utzi nau, ustez ezkerreko lagun aurrerakoiak. Dedio, zenbat lan dugun egiteko!

«Dedio, zenbat lan dugun egiteko!»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Garrantzitsuena parte hartzea?

Raketa euliak hiltzeko ere hartzen ez duena teniszale amorratua bihurtu da Garbiñe Muguruzak Roland Garros irabazi duenetik. Futbola aparkatu xamarra zuen hura Osasunazale handiena da igoera promoziora sailkatu denetik... BKT edo Errekaren partidak ikusten ez dutenek eskubaloia gorapatzen dute Bidasoa Asobalera igoz geroztik... Parte hartzea garrantzitsua da, baina irabaztea...

Nabarmentzekoak

**Mikel NIEVE**

Etapeta eta Mendia Giroan

**Salvadora ARBURUA**

100 urteko etxalartarra

**Joseba LEGARRA**

Errekaren Egunean omendua

Mikel Landa taldeburua erretiratzeak ez dio kalte handirik egin txirrindulari leitzarrari Italiako Giroan. Etapa bat irabazteaz gainera, mendiko sailkapeneko *maglia azzurra* jantzi zuen.

Perukiñenekoak mendea bete zuen maiatzaren 30ean eta herriaren izenean lore-xor-ta eman zion alkateak eta Larraburua Zahar Etxean oroigarria eman zioten bizilagunek.

Europako kantxa onetan ari den Niko Mindegia eta elkartearen sortzaile izan zen Javier Blas ez ezik, gaur egun presidente eta jokalaria dena omendu zuten Errekaren Egunean.

Atzera begira → 2006-VI-15 / TTPI-TTAPA 424 zk.



Oreinak hazten hasi ziren Leitzako Lesakenean

Duela 10 urte, haragitako behiak kendu eta 60 orein eme ekarri zituzten Leitzako Gorritaran auzoko Lesakenera. Joxe Mari Gartziaarena nagusiak aipatu zigunez, «proba moduan hasi gara eta ez gara kolpean gehiago ekartzera ausartu. Ongi badoa 150 orein jartzeko ideia badaukagu, baina hemen lur-eremuak agintzen du azkenean». Baserriaren norabide aldaketari zegokionez, argi mintzatu zen Gartziaarena: «behiak kentzea pena eman zidan, baina horrela ezin zitekeen segitu! Gero eta dirulaguntza txikiagoak eta exigentzia handiagoak ditugu».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Eliza egonen

Luis GARDE

U rteroko errenta aitoren inprimakia betetzeari, ni gizarte-xedeei laguntzeko aukia markatzen duten horietakoa naiz. Edo, berdin dena, Elizaren aldeko «X» markatzen ez dutenetakoa. Dudarik ez dut, hala ere, urtean zehar Estatuari ordaintzen ditudan zergetatik puxka bat Elizaren gastu ugariak finantzatzeko erabiltzen direla. Eta nire esku zabaltasun behartu horrek, sinestun ez izan arren, eskubidea ematen dit Elizaren ordezkarien ekintzei eta jarrerari buruz iritzirik emateko. Are gehiago, goiko mailako ordezkariak beren jendaurreko adierazpenetan hiritar guztiei, bai fededunei, bai agnostikoei, bai ateoei zuzentzeko ohitura dutenean. Apezpikuak, hain zuzen, moral publiko eta pribatuaren zaintzaile zorrotz eta gogor agertzen zaizkigu hedabideetan. Gure bizitzetan eta gure bizitzekin zer egin eta zer ez egin erraten digute telebistetatik, hatz erakuslea goratuta, aurpegian haserre puntu bat erakusten digutelarik.

Azken «perla» mediatikoa Cañizaresek, Valentziako artzapezpikuak, oparitu digu. Haren ustez, familia kristaua arriskuan dago, zenbait politikari familiarren kontra aritzen direlako gay inperioaren eta ideologia feministen laguntzarekin. Are gehiago, intsumiso agertzen da genero berdintasunerako legeak desobeditzeko deialdia eginez. «Generoaren ideologia eta laikotasuna» historiako ideologiarik suntsitzaileentzat jo du. Komunismoa bera haur-jolas omen zen, laikotasuna eta genero berdintasunarekin konparaturik. Arraroa, benetan, «inperio gay» kontrako gaitzespenak entzutea koloreetako tunikekin eta buruan kukurutxo handi batekin jantzitako gizon zahar baten ahotik.

Arraroa ere halako jarreraren eta aita santuaren adierazpenen arteko kontrastea. Elizako hierarkietan haserre eta intolerantzia dena, hierarka horien nagusi-an, Frantzisko argentinar horren hitzetan eta keinuetan alegia, irribarrea eta jarrera barkabera da. Baina bietako zein ote da gaurko Elizaren irudi errepresentatiboena? Cañizaresena edo Vatikanon isolatu samar dirudien Frantzisko paparena? Bietako zein azalekoena, zein igarokorrena?

«Guziak goaki bainan Eliza egoki», idatzita utzi zuen Senpereko Zaldubi poetak hemeretzigarren mendean. Kontu honi dagokionez, honela eguneratuko nuke lerro gogoangarri hura: «Frantzisko joanen baina Eliza egonen».

«Elizako hierarkietan haserre eta intolerantzia dena, hierarkia horien nagusi-an, Frantzisko argentinar horren hitzetan eta keinuetan alegia, irribarrea eta jarrera barkabera da. Baina bietako zein ote da gaurko Elizaren irudi errepresentatiboena?»

OSASUNEZ

Molestiak pixa egiterakoan

Juan Manuel PEREZ (Doneztebeko medikua)

Zer da gernuko infekzioa?

Gernubideetako infekzioa uretran eta maskurian germenak sartzen direnean gertatzen da, normalean bakterioak, eta hauek ditu sintomak: mina edo erre-sentsazioa pixa egitean; uneoro pixagaleak egotea (baita pixa egin ondoren ere); askotan egitea pixa, baina kantitate txikia; pubis gaineko mina. Gainera, odol pixka bat egon daiteke pixan (ikusten dena edo gernuaren analisisan sumatua), baita sukarra eta gerrialdeko mina ere.

Nola jakin dezakegu gernuko infekzioa dagoela?

Baliteke kontsultan gernuanalisia egin beharra, edo analisi sakonagoa, "kultibo" bat, infekzioa zer bakterio eragin duen jakiteko. Segidan infekzio bat baino gehiago gertatu direnean egiten da horrela.

Nola hartzen da gernu-lagina?

Genitalak ongi garbitu, beti aurretik atzera. Pixa-zorro-tadaren hasiera baztertu, eta gero bildu pixka bat ontzi esteril batean.

Tratamendua botikekin

Gernuko infekzioak bakterioek eragiten dituzte. Horregatik, antibiotikoak erabiltzen dira tratamenduan. Konplikaziorik ez duen infekzioa bada, aski izan da 2-3 egunez hartzea. Infekzio gaiztoagoa denean, tratamendua luza daiteke.

Mediku eta erizainek dakite infekzio bat noiz den arrunta edo gaiztoagoa. Beraz, haiek esanzen dizute ze antibiotiko hartu behar duzun. Ez hartu antibiotikorik haiei galdetu gabe.

Zer egin dezaket gernuko infekzioak saihesteko?

- Likido asko edan egunero (2-3 litro egunean), eta C bitamina askoko elikagaiak jan (C bitaminak gernua azidotzen baitu).
- Pixagaleak zaudenean, ez eutsi denbora luzean eta luze gabe, joan pixa egitera.
- Ongi garbitu genitalak. Emakumeen kasuan, beti aurretik atzera. Ez erabili genitalerako xaboirik.
- Hobe dutzatzea bainatzea baino. Beti ere, ongi lehortu.
- Barneko arropa kotoizkoa izan dadila, eta ez estua.
- Pixa egin sexu-harremanak izan baino lehen eta izan ondoren.
- Gernuko infekzioa maiz izaten baduzu, aztertu aldatu behar ote duzun kontrazepzio metodoa.

Erne egon, eta Osasun Etxera joan edo deitu baldin eta:

Sukarra, sabeleko edo gerrialdeko mina baduzu, edo gaizki sentitzen bazara, ezongi. Sintomak desagertzen ez badira. Edozein zalantza duzula ere, galdetu zure erizainari.

Irakurleak mintzo

Guztiok
taldearen
eskertzaNagore ARRETXEA (Guztiok
elkartearen izenean)

Pasa den Maiatzaren 21ean, Beran 10. Ezgaitasun jardunaldiak burutu ziren. 10. Jardunaldiak izaki, ospakizun berezia antolatzen saiatu ginen. Goizean, Berako kultur etxean, dislexia eta ikasketetan sortzen diren arazoei buruzko hitzaldia egin zen, mahai ingurua, gosari ederra, umeentzako txokoa eta erakusketa izan ziren. Hori guztia, modu borobil batean bukatzeko, animatu ginenok, bazkari goxo batekin bukatu genuen.

Egun ederra izan zen. Aintzineko egunetan egindako lan gogorrak, bere fruituak eman zituen.

Berako herria, aski ongi dakigu, horrelako ospakizunetan beti laguntzeko prest dagoela eta eskutitz honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu, Errekalde ostatuari, Xuga ostatuari eta Sarobe okindegiari, beraiei esker, hamai ketako goxoa dastatzeko aukera izan genuelako.

Behar bereziak dituzten seme-alaben familiak gara eta nahiz eta egunerokotasunean oztopo gogorrak eta neketuak izan, aitzinera jarraitzeko egin ahalak egiten ditugu.

Hau guztiarekin erran nahi dugu, egun horretan hurbildu zirenen guztiei, modu bate-

ra edo bertzer lagundu zenutenei, parte hartzaileei... bihotzez mila esker!!

Zuei esker, errezago egiten zaigula aurrera ateratzea eta horrela, bertze hainbertze jardunaldi antolatzeko ilusioa ematen digula.

Bortzirietako Guztiok taldearen izenean eskerrik asko!!!

Aroztegia
Jauregia
egitismo
urbanistikoaAinhoa NEGERUELA
IZAGIRRE eta Juan Mari
ALEMAN IRUNGARAI
(arkitektoak)

Baztanen, Lekarozen egikaritu nahi duten Aroztegia egitismo urbanistikoauren aurka egoteko hamaika arrazoi daude. Guk, arkitekto gisa, geure arrazoiak zerrendatu eta plazaratu nahi ditugu.

Proiektuaren sustatzaileek, egitismoa definitzerako orduan, jasagarria izango dela diote eta bailarari onurak baino ez dizkiola ekarriko. Baina hiri jasagarriari buruz 2007an Leipzigekeko gutunetan zehazten direnak edo

eta Nafarroako lurralde eta hirigintza antolamenduak (35/2002) 51.2 artikuluan zehazten dituenak kontutan hartuta, egitismoa ez litza-teke inondik inora jasagarria izango.

Batetik, hurrengo belaunaldiei lurraldea egungoa baino egoera okerragoan utziko genikeelako (35/2002 arrazoien azalpena). Bestetik, herriguneak era trinkoan haztea sustatu behar delako, herrigunee-tako trama osatuz eta birgaituz. Aroztegiako egitismoak, berriz, lur ez-urbanizagarrietan eraikiz, herrigunetik kanpo kokaturiko asentamendua proposatzen du. Zabaltze mota horrek lurrak kentzen dizkio abeltzaintza eta nekazaritza jardueri, garrantzi ekologikoa duten guneak eraldatzen ditu eta erreserba naturala murrizten du.

7/2015 E.D legearen 20.1 artikulua dioenaren arabera, lur ez-urbanizagarria hiri-lur bihurtzeko, hau da, birkalifikatzeko, justifikaturiko beharrak egon behar dira; horrela espekulazioa eragozteko. Kasu honetan, golf zelaila eta golf eskolaz gain 230 etxebizitza berri eraikitzeke 46 hektarea birkalifikatu dira, erabilera publikoko mendia eta erretako baso-lurra barne.

35/2002 legeko 51.3 artikulua, berriz, mugikortasun jasagarriari buruz dihardu, hirigintza planeamenduak biztanleen desplazamendu beharra murriztu behar duela zehaztuz. Bai-

na Aroztegiako proiektuak, zerbitzurik gabeko asentamendu isolatua proposatzen duenez, motordun ibilgailuen etengabeko beharra sortarazten du.

Egitismoaren memorian, (*P.S.I.S el área turística, hotelería, deportiva y residencial en entorno del "palacio de Aroztegui" en Lekarotz*) 6.2. puntuan, sustatzailerik diote proiektuaren filosofia garapen jasagarriaren aldeko apustua egitea dela, ingurugiroaren, ekonomiaren zein jasagarritasun sozialaren aldeko apustua.

Jasangarritasun sozialak gizartearen ongizatea izan behar du xedetzat. Beraz jasagarria izango den edozein proiektu lekuko eskaera sozialei erantzun beharko lieke; bertakoen bizitza era errespetatuz, bertakoen bizitza kalitatea hobetuz eta proiektuaren diseinuan bertakoen parte-hartze erreala bermatuz.

PSIS edo UGPS-aren memoriaren 6.4 puntuan kultura aipatzen da, bailarako kultura errespetatu, mantendu eta zabaltzea egitismoaren ardatz estrategikoetarikoa bat dela zehaztuz.

Gaindegiak zenbait udalerritan egindako azterlanean ondorioztatzen dutenez, harreman zuzena dago eraikitako etxebizitza berrien kopuruaren eta hizkuntza-euskara-gaitasunaren-galeraren artean.

ELE (*eragin linguistikoaren ebaluazioa*) ikerketaren bidez Leka-

rozko Aroztegiako UGPS proiektuak lekartzakeen eraginak aztertu dira, eta emaitza argia izan da: bizi kalitatean eta komunitatearen gizarte eta kultura bizitzan eragin larriak sortuko lituzke eta biztanleriaren ezaugarri soziolinguistikoei berriz, proiektu horren eragina kritikoa litzateke.

Ez luke, beraz, proiektu honek bailarako kultura (euskara) errespetatu, mantendu eta zabalduko.

Bestalde, hirigintza egitismoak garatu aurretik lekukoek duten benetako eskaera eta beharren azterketa egin behar da. Dauden etxebizitza beharrak ezagutu eta erantzuna beharrian zehatz horri eman ez. Gainera, oin berriko eraikinak eraiki aurretik jadanik eraikita daudenei eman behar zaie irtenbidea. Hutsik dauden etxebizitzak (Baztanen 800 inguru) eta eraberritu eta bererabili daitekeen ondare arkitektonikoa lehenetsiz.

Hirigintzari buruz ari garenean, gu guztioi buruz ari gara. Gure bizitzaren agertokia izango diren, kale, zubi, zuhaizpe, aldapa, eraikin eta parkeei buruz ari gara eta agertoki hori geuk erabaki, diseinatu eta disfrutatzeaz buruz.

Hirigintzaz ari garenean, gure herrian eraikiko diren proiektuak parte-hartze bidez erabaki, proiektuei buruz gure iritzia eman eta iritzia hori aintzat hartzeaz buruz ere ari gara.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:


info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Komertziorik gabeko eta bizitza sozialik gabeko herrien bidean goaz. Hau bukatu eginen da erremediorik gabe, jendeak ez badu kontzientzia hartzen eta komertzioak herrirako suposatzen duena ez badu baloratzen».

«Urtean zehar juxtu-juxtuan gastuak estaltzera ailegatzen gara, eta batzuk ezta hori ere eta azkenean ixter behartuak daude».

Deñe ABUIN

Denok Bat Federazioa
D. NOTICIAS 2016.06.08



«Ez nuen inondik ere espero, neretzat Italiako Giroko mendiko sailkapena irabaztea sorpresa handia izan da. Ia nahi gabe sartu nintzen azkenean, baina oso pozik nago egindako lanarekin. Frantziako Tourrerako Skyren aurreselekzioan sartu naute, orain ez dut Tourreko etapa garai-penean pentsatzen, baina oso polita izan-go litzateke lortzea».

Mikel NIEVE

Leitzako txirrindularia
D. NOTICIAS 2016.05.31

11 galdera labur

Nor da Albaro Soule?

Arizkungo gazte bat, 1992 urtean sortua.

Uretan, airean, lurtean... non sentitzen zara gusturago?

Gustura sentitzen naiz hiru lekue-tan. Beti ere lurra alde batera uzten duzunean, emozio puntu bat hartzen du denak. Baina uretan eta airean ibili ta gero, gustura hartzen da lurra ere!

Asteburuko planik hobereena?

Lagunekin egotea, ateraldiren bat, abentura, musika, futbola....

Kayak, piragua... zein da inguruan dagoen jeitsierarik politena?

Baztan Ibaia. Duela urte batzuk aukera izan ginuen Baztango tramo guzia egiteko eta benetan polita!
Batez ere hemen-go erre-ka dela-ko.



Albaro SOULE → Arizkungo gaztea

Airetik ateratzen dira argazkirik ederrenak?

Denborarekin konturatu naiz argitasun puntua arrapatu behar dela zerbait polita ateratzeko, eta aunitzetan zaia dela. Ez zait gustatzen drona altura haundian jartzea. Argazki politik, 40-50m. ingurutik ateratzen ditut...

Osasunakoa izateko indar berezi bat behar da?

Hala da bai, Indar Berezi bat...

Eguna edo gaua?

Eguna.

Arizkungo bestetako bereizgarria?

Uda hasieran tokatzen direla. San Juanak, suak, egun luzea... lotura hori.

Arizkungo bestetako ekitaldi politena?

Kontzertuak

Arizkungo txokorik gustukoena?

Lamiarrita.

Amets bat...

Familia, lagunakin eta osasuna izaten segitzea.

sarobe®
gozotegia okindegia

pº de eztegará 25 bajo
31780 Bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

BAR Botxo OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak ...

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MARCELO ORBEA MERIDA SCOTT BH

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - **ARIZKUN**

Dutarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arroltzeak
Dutaria baserria • ARIZKUN • 616 756 359

ONGI PASA BESTAK!
BERRO BIDE, S.L.
Nekazaritza eta industria tresne
konponketa, alokairua eta salmentak
Ordoki poligono industriala
31713 Arizkun
Tel: 948453343
FAX: 948453425
FENOT
AMMANN
YANMAR
KRONE

Ongi pasa bestak!!!
restaurante • jatetxea
BIXTA-EDER
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA
948 453 358 • 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
bixtaeder@hotmail.com
www.bixtaeder.es

FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.
FORJA ZAPATA
Arizkun-Baztan • 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es

ARIZKUNGO BESTAK



ARGAZKIAK: VALLEDEBAZTAN.COM

EGITARAUA

EKAINAK 22, asteazkena

12:00 Dianak, txupinazoa eta gazteen luntxa. **13:00** Txopo goratzea. **14:00** Bazkaria. **16:00** Sorpresa. **21:30** Baztan zopak Beñatek alaituta.

EKAINAK 23, ortzeguna

10:00 Dianak. **10:30** Enriques party egun guztian zehar. **14:00** Haur eta gazte bazkaria. **17:00** Bertsolariak plazan (Julio Soto eta Iker Zubeldia). **18:00** Txokolatada. **20:00-21:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin. **Ilunabarrean** suak eta antzerkia (bokadilloak salgai) **Ondotik** Mutildantzak eta Gaiteroak. **23:30-03:00** Dantzaldia, Oharkabe taldearekin.



ONGI PASA BESTAK
ordoki erretegia asador
Ordoki industrialdea • 31713 ARIZKUN
T. 948 45 31 65 - 608 53 88 61
asador.ordoki@gmail.com
www.asadorordoki.es



EKAINAK 24, ortziralea

10:00 Dianak. **11:00** Meza nagusia **12:00** Mutil dantzak. **Ondotik** luntxa. **17:00** Frontenis txapelketako finala. **18:00** Mexikanak, Puro Relajo (bokadilloak salgai). **21:30** Mutildantzak eta gaita. **23:00** Arizkun Rock, Ze esatek! eta Ufestuek talde-
en kontzertuak. **Ondotik** DJ Tirri&Tery.



EKAINAK 25, larunbata

10:00 Dianak. **12:30** Mus ineztura. **14:00** Zikiro jatea, Mendiberri akordeoilariak alaituta. **18:00** Dantzaldia Laiotzekin. **20:00** Zingar jatea. **21:30** Mutildantzak eta gaita. **23:00** Dantzaldia Laiotzekin.

EKAINAK 26, igandea

10:00 Dianak. **12:00** Haurren dantza emanaldia eta Baztango dantzariak. **17:00** Futbol partida Lamierrian. **19:00** Kantaldia Erramun Martikorena eta Joxe Angelekin. **20:30** Patata tortila lehiaketa (saria: asteburu pasa). **21:30** Mutildantzak eta gaita. **00:00** Gaixoa ni eta txopo botatzea.



Mármoles SOULE

HILETA ARTEA
ONGI PASA BESTAK!!

T. 948 453 444 | M. 688 605 182 | ARIZKUN



azkarate

IKUZTEGIA LAVANDERIA INDUSTRIAL

Ongi pasa bestak!

Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 209



ongi pasa
bestak!

TASKA

DOLAETEA

T. 948 453 002 | ARIZKUN



URTXULUTEGI

ZURGINDEGIA

ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak

Zurgin lanak orokorrean
PVC eta ALUMINIOA



Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es



KASTONEA
LANDETxea
OSTATU-JAETXEA
Ongi pasa bestak!
31714 ERRATZU
948.581.393 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ALBANTZENA
Santi Dendarieta
OSTATUA-DENDA
Ongi pasa herriko bestak!
Albantzenea etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112

IPERLA
OSTATUA
EGUNERO GOSARIAK
948 453153
Aduana karrika - ERRATZU
PANPI PORTUGAL ekainaren 30an 22:30ean

ALTXUKO
janaridenda
DENDA
EGUNEROKO EROSKETA, ETXETIK HURBIL
948 453 471
ERRATZU
ONGI PASA BESTAK

Serrería Alemán S.L.
Especialitatea:
Haritza, Izeia, Douglas,
Laminatuak eta KVH
ONGI PASA BESTAK!
Frantziako errep. 2-A 31714 ERRATZU
T. 00(34) 948 453 173 · F. 00(34) 948 453 082
serreriaaleman@gmail.com · www.serreriaaleman.com

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun



- Hego Euskal Herria 40€
- Europa 74€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 34€
- Amerika eta Australia 124€
- Ipar Euskal Herria 74€
- Leitza 20€

Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635 458
erran.eus | info@ttipi.eus

ERRATZUKO BESTAK

EGITARAUA

EKAINAK 28, asteartea

12:00 Txupinazoa eta ezkil jotzea. **17:00** Izpegiko VII. bizikleta igoera. Txokolata-da eta sari banaketa egingen dituzte segidan. **20:00** Kontzentrazioa plazan. **21:30** Baztan zopak Kastonean. **22:00** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00** Sa-laberri akordeolariarekin dantzaldia plazan.



EKAINAK 29, asteazkena

10:00 Argi-soinuak. **11:00** Meza eta segidan, luntxa herriko plazan. **17:30** Ginkana. Herritarren arteko desafioa. **20:00** Los Tenampas y sus Mariatxis taldeare-kin mariatxiak plazan. **22:00** Mutil-dantzak, gaita eta Larrain dantza. **00:00** Dan-tzaldia Hauspolariek taldeak alaiturik.

EKAINAK 30, ortzeguna

10:00 Argi-soinuak. **11:00** Pilota partidak Gorostapolon, ondotik zintzur bustitzea. **14:00** Zikiro jatea frontoian Modestok alaiturik. **20:00** Dantzaldia plazan Modes-toren eskutik. **22:00** Mutil-dantzak, gaita eta Larrain dantza. **22:30** Panpi Portu-gal Iparlan. **00:00** Dantzaldia plazan Modestok alaiturik.



UZTAILAK 01, ortziralea

10:00 Kalejira herriko haurrek alaiturik. **10:30** Haur jokoak eta puzgarriak fron-toian. **Eguerdian**, haur eta gurasoendako bazkaria Kastonean. Ordu berean, pa-ella herrikoia izanen da plazan nahi duenarendako. **16:00** Haur jokoak eta puz-garriak frontoian. **Ondotik**, Haurren frontenis txapelketako finalak. **18:00** Südü-rüzkhí farandüleiro elektrotxaranga herritik barna. **22:00** Mutil-dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00** Kontzertua Zubi Puntan eta **ondotik** DJ Txingudi plazan.

UZTAILAK 02, larunbata

10:00 Argi-soinuak. **12:00** Frontoiko bezperako zaborrak garbitzeko auzolana. **13:30** Zintzuk bustitzea. **14:00** Bazkaria kanpinean (sarrerak Zubi Puntan eta Kan-pinean). **17:30** Pilota partidak: 1. Afizionatuen arteko partida. 2. Titin-Gorrotxate-gi vs. Xala-Begino). **Ondotik**, emaztegien frontenis txapelketako finalak. **20:00** Trakets taldearekin dantzaldia plazan. **22:00** Mutil-dantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00** Dantzaldia plazan Trakets taldearekin. **03:00** DJ Tirri&Tery.

Jaime SEIN

«Denborarekin konturatu naiz trapatan eta bandera dantzak herrian duten esanahiaz»

Doneztebe futbol taldeari buruz solasean hasitakoan, ezinbertzean burura datorkigu Jaime Seinen izena. Sortzez igantziarra da baina 28 urtez Donezteben bizita aitortu digu «gustura» sentitzen dela bertan. Umetatik izan da bere kirolik gustukoa: na futbola «Lesakako Beti Gazte taldean jokatu nuen gaztetan» eta urte batzuetan futbola alde batera utzi bazuen ere bere bi semeak futboleko hasi zirenean piztu zitzaion berriz barruko arra. 2004an sartu zen Doneztebeko futbol taldearen zuzendaritza batzordean «eta 2006ko azarotik lehendakari karguan ari naiz».

195 JOKALARI, 12 TALDETAN

Eskualdean futbolerako afizioa badela dio «edozein arratsaldetan entrenamenduetan futbol zelaian biltzen den jende kopurua edo partidetan sortzen den giroa ikustea aski da hortaz konturatzeko». Doneztebeko Futbol taldeko zenbakiak ere horren adierazle dira «futbol zelaiko maila guztietan lehiatzen ari gara, benjaminetatik hasi eta senior arte. Areto futboleko talde bat ere badugu. Guztira 12 talde dira eta 195 jokalaria. Gehienak Doneztebekoak dira baina inguruko herrietatik 90 etortzen dira».

«Ez dugu maila berria ezagutzen eta errespetu handiarekin hartu behar da, baina konfiantza osoa dugu taldearengan, inplikazio handia duen taldea da eta ongi ibiliko dira».

EMAITZAK BIKAINAK

Futbol zelaia egin zenetik, «dena errazagoa» dela aitortu digu, «emaitzak ere hobeak dira». Aurtan, bertzeak bertze, Nafarroako erregionaletako lehen mailan liga irabazi eta mailaz igotzea lortu dute «igoera oso ongi ospatu genuen eta harrigarria izan zen Iruñean horrenbertze jende taldearen

ondoan ikustea». Ongi irabazia dute beraz, aurtan jokalariek San Pedroetan besta egiteko baimena.

KALEKO GIROAZ GOZATZEKO EGUNAK

Jaime berak ere ahal duen neurrian bestetaz gozatzeko tartea hartzen du «emaztearekin eta lagunekin kaleko giroa bizi, trago eta afari batzuk egin...». Bezpera da gehien gustatzen zaion eguna «altxaferoa bota eta hortik aurrera sortzen den giroa eta nola ez, baztan-zopak». Ekitaldirik politena berriz, San Pedro eguneko Trapatan eta bandera dantzak dira bere ustez «hasieran ez nintzen konturatzen, baina urteak pasa ahala ikusi dut doneztebar guztientzat momentu bereziak direla. Aski da euren aurpegiak eta begiak ikustea».



EROSKI city

Ongi pasa bestak!!

T. 948 456 152
Zazpigarutze, 8 · DONEZTEBE

Zuzendaritza berriarekin prezio ezin hobeak!

Inzakardi ongi pasa bestak!

Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Belarra jaletxea **ONGI PASA BESTAK!**

Amezia zeharkarria, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

goldea ongi pasa bestak!

tailerra s.l.l.

tel./fax: 948 450 060
e-mail: goldeataller@gmail.com
Pol. Industrial Aparan, 3
31740 Doneztebe (Nafarroa)

Arrate Estetika Zentroa



- Masaje erreduktorea 45€
- DHA 30€
- Makillajea aerografoarekin edo eskuz 32€/22€
- Makillaje kurtsoak
- Depilazio arrunta edo elektrikoa
- Aurpegiko garbiketak 45€-80€

* Beste hainbat gauzez gain, produktuen salmenta eta Txekie opariak egiten ditugu!
Zatoz eta ez zara damutuko! ☺

948450286



**LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!**

ONGI PASA BESTAK!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 826

OSTATUA

zrb.net
informatika

ONGI PASA BESTAK!

Santa Luzia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

Mailposta
publizitate banaketak

ongi Pasa beStak!!

Inprimategia **Publizitate banaketak**

Zure inprenta eta publizitate banaketarako enpresa

Arribilagako bidea, 55
31793 Narbarte

686 747 713
648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
amaia@mailpostabuzoneos.com


Julia

Gozotegia . Kafetegia

Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471

TERRAZA • Wi-Fi gunea

Ogia, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak... ENKARGUAK HARTZEN DIRA



KONTXA Gasolindegia



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- TABAKO SALMENTA
- TELEFONO MUGIKORREN BIRKARGA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK

- DUTXA ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

**SUPERMERKATUKO PREZIOAK DITUEN DENDA
ESKATU DOHAINIK GURE DESKONTU TXARTELA, A GASOLIOA ETA SP 95 PREZIO EZIN HOBEAN!**

GASOLIOA ETXERA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA
- ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
- PREZIO LEHIAKORRA

TASKA **Simón** **TABERNA - KAFETEGIA**

* MENUAK
* PLATER KONBINATUAK
* OGI TARTEKOAK
* PINTXOAK

~ ERAMATEKO JANARIAK ~

Eskaerak 948 450 912



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

Ainara MENDIA IBARRA

«Bezperan ongi baina, biharamuneko mezarako doi-doi izaten dugu ahotsa»

Nolako zura, halako ezpala dio esaera zaharrak eta hala izan zen Ainararen kasuan ere «nere familian musika oso garrantzitsua izan da hainbat belau-nalditan eta nik uste, hortik datorkidala kantarako afizioa». Bederatzi urte dara-matza Mendi abesbatzan kantuan «has-mentan denboraldi motza egon nintzen eta ikasketak zirela eta utzi egin behar izan nuen. Baina aukera izan nuen or-duko bueltatu nintzen...». Talde kokko-rra biltzen dira astero «50 bat inguru. Astean behin elkartzeko gara emanaldi berezirik ez badugu. Lehiaketaren bat baldin badugu, gogor lan egiten dugu. Lanak ordaina ere izaten du eta ha-lakoetan, «izugarritzko poza» ematen digu!». Hain juxtu, apiril hondarrean bi-garren saria eskuratu zuen Mendi Abes-batzak Atarrabian, lehenbizikoarekin berdinduta.

BEZPERAN ETA EGUN HANDIAN KANTUAN

Abesbatzako kide izateak badu ardura

puntu bat ere, «San Pedro eguneko meza nagusian eta bezperan abesten dugu». Horrek, zintzurra zaindu beharra dakar «bestak ahotsarekin hasi eta bukatzen direnerako larri ibiltzen naiz. Bezperan ongi baina biharamuneko San Pedro eguneko mezarako doi-doi izaten dut ahotsa. Eskerrak laister berreskuratzen dudana!».

PARTE-HARTZEA GOITI

Bestazalea da oso eta eguneko eta gaueko giroa biak ditu gustuko «bietaz goza liteke, bakarra aukeratu beharrik gabe». Bestetan jendearen parte-hartzea goiti doala dio «besta geroz eta herrikoia goak direla iruditzen zait. Adin desberdinetako jendea elkarrekin ibiltzen da giro politean».

HERRI BAZKARIAN GIRO BIKAINA

Ainarak aipatu digunez, gauez ez da sobera ateratzen «goizez nahiago dut, baina lana ere badut eta horregatik nahi dudana ekitaldi guztietara ezin eta ahal dudana guztietara joaten naiz». Dena den, baditu tartean galdu ezin dituenak ere «Erreka dantza taldearen emanaldia oso ikusgarria da eta herri bazkarian ere primeran pasatzen dugu. Bazkari hau da nire ustez bestetako ekitaldirik po-litena. Eguraldiak laguntzen badu, de-nak elkartu eta txarangarekin dantzan errekan sartzen gara».

Egitarau osoari errepaso bat ematen hasita, bere esku balego, kontzer-tu bereziren bat gehituko lukeela dio eta soberan berriz, «zenbait-en astakeriak daude. Ongi pasatzeko ez da beharrezkoa ez-er hautsi edo inorekin sartzea».

«Agur Doneztebe! da dudarik gabe herriko bestetako abestia. Urtero abesten dugu, bestetan bakarrik».



ordua eskatu

MAITE ileapaindegia

Solarium-a

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4

© 948 451 780 - DONEZTEBE

AINHOA ileapaindegia

EMAKUMEA ETA GIZONA

ONGI PASA BESTAK

Parrokia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

Rosquillas Lourdes (Roskilule)

Etxeko gozokiak | Reposteria casera

Erroskillak • Kokoak • Txokolatzeko croissantak

Brownie • Hostopila • galletak

Denak egin berriak!!!

Enkarguak hartzen dira bandejaka eta dozenaka

T. 619 91 33 75

facebook.com/roskilule

Sampi Aragón

TALLER ESPECIALIZADO SEAT

ONGI PASA BESTAK

Sampi Aragón S.A

MARKA HAUTAN ESPEZIALISTAK

Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura

Audi SEAT VW

T. 948 450 354 | DONEZTEBE

sampiaragon@sampiaragon.com

ESKAINTZAK

BEHAR DUZUN GUZTIA BADUZU?

SOROPIL-EBAKITZEKOAK 149€ tk

SASI-MOTZEKOAK MOTOSEGA 149€ tk

HIDROGARBITZAILA 139€ tk

ONGI PASA BESTAK!

STIHL VIKING

BANATZAILEA

José Luis San Miguel

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

Juanotena
zurgindegia

Ateak • Eskailerak • Leihoak • Teilatuak
Zolak • Kontraleihoak • Armairu enpotratuak

www.juanotena.com

Leitza Errep. 35 • DONEZTEBE • T. 948 45 02 11
juanotenzurgindegia@gmail.com

CTV ALBAITARITZA
ZENTRO
TEKNIKOA

ONGI PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

BENI
arraindegia

ONGI PASA BESTAKI

K. Nagusia 2 • DONEZTEBE
T. 948 450 589

Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

ONGI PASA BESTAKI

ONGI PASA BESTAK

MALE REKA
KUSTOM

ARROPA ETA
OSAGARRI
PERTSONALIZATUAK

Nagusia, 1 • DONEZTEBE
948 451 571 • 636 885 190
male-reka@male-reka.com
f Male-Reka

Miguelena

K O M U N A K

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

S U K A L D E A K

isan cocinas

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

EGITARAUA

EKAINAK 28, asteartea

18:00 Bezperak elizan. **19:00** Zezentxoak Santa Luzia plazan. **20:00** Txupinazoa. **Ondoren** kalejira Doneztebeko txistulariak eta Elutxa txarangarekin. Herriko elkarte eta ostatueta zopak emanen dituzte. **00:30** dantzaldia Trikidantz taldearen eskutik.



EKAINAK 29, asteazkena

09:00 Diana. **11:00** Meza Nagusia. Agur Doneztebe, Trapatan eta Bandera dantza. **Goizean** Elutxa txaranga ibiliko da herrian. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **13:30** Aperitiboa udaletxe azpian. **18:00** Benito Rosen erakustaldia trialeko bizikleta eta motoarekin Bear Zanan. **Ondoren** Bonba japoniarrak. **20:00-22:00** Fan&go musika taldea Santa Luzia plazan. **22:00** Joaldunek herriari buelta emango diote. **22:15** Erreka dantza taldearen ikuskizuna Bearzanan. **Segidan** Dantzaldia Fan&go taldearen eskutik.



EKAINAK 30, ortzeguna

09:00 Diana. Aurorak eta gaiteroak. **10:30** Lore eskaintza San Pedrori. **11:00** Udal tikiari ongietorria eta txupinazo koloretsua. **11:30** Kalejira eta dantzari tikiari ikuskizuna Bear Zanan. **Ondoren** Joku zaharrak haur eta gazteentzat. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **14:00** Udal tikiari aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria. **16:00** Haurrentzako Jokulandia Bear Zanan. **18:00** Aurorak eta Elutxa txarangarekin poteo alai. **19:30** Udal tikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **20:00-22:00** Dantzaldia Hauspolariek taldearen eskutik. **22:15** Zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30** Endara DJ Santa Luzia plazan.

apc
ILUMINAZIOA
LED argiztapen salmenta eta instalazioa
Nagusia 7 - Doneztebe - Tel. 615 008 666
comercial@apciluminacion.com
www.apciluminacion.com

ONGI PASA BESTAK!

MAKINAK ETA ZERBITZUEN ALOKAILUA
J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak
DONEZTEBE
Leitza bidea, 72 - DONEZTEBE - T. 948 451 793
T. 659 702 694 - jvjubera@gmail.com

Cambridge English
Teacher
Member

Angie
ENGLISH ACADEMY

- Itzulpen lanak
- University of Cambridge azterketara aurkezteko prestakuntza
- Eskola-laguntza
- 2015/2016 kurtzarako matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak

25 URTE MALERREKAN
Ongi pasa bestak!
Elizagibela, 7 beheha - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - angieacademy@gmail.com

ONGI PASA BESTAK

talleres EDERKI tailerra

CITROËN

Leitza errepidea z/g
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI

Loteria primitiva
Kinielak
Pelukeroa

T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8
DONEZTEBE

TITI BAR
DONEZTEBE

Ongi pasa bestak!

Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Doneztebe autoeskola

A1 - A - B - BTP - C1
C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
"35 orduko CAP ikastaroak"

BESTA ONAK PASA!

948 451 929
Leitza errepidea 2 beheha DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com

Mendiburu

aziendak · tratantea

Ongi pasa
herriko bestak!



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

ONGI PASA BESTAK



KAXKANTE ESKABAZIOAK

Inoiz baino hobe, leku estuetan ere

Miguel Angel Oyarzabal
Egurretxe, Donamariko bidea
31740 Doneztebe

608 978 210



Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE



MIKEL MUTUBERRIA

zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean

ONGI PASA BESTAK!

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

TABERNA ZAHARRA



ONGI PASA BESTAK

Gizon eta emakumeendako
arropa-denda

Gortinak eta
etxerako arropak
(mantak, maindireak...)

Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007



MARTIN IBARRA

FORJA ARTISTIKOA
AROTEGIA

ONGI PASA BESTAK!

Oteiza auzoa, 4
31740 DONEZTEBE
669 068 622
forjmartin@baztanbidaso.com

LEKARAZKO BESTAK

Abuztuaren 21etik 25era 2015

Rautak 9. urterako eta azpitik

20:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
22:00 Alaitasuna (Lekazkoak)

Rautak 10. urterako eta azpitik

20:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
22:00 Alaitasuna (Lekazkoak)

Rautak 11. urterako eta azpitik

20:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
20:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:00 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:10 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:20 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:30 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:40 Alaitasuna (Lekazkoak)
21:50 Alaitasuna (Lekazkoak)
22:00 Alaitasuna (Lekazkoak)



LESAKA

2016ko SANFERMINAK

Sunbilla

Martxoak 06 Eguerdiko 12:00etan

Ramon Latazen heriotzaren 25. urteurrena

DONATO LARRETKEA
IKER VICENTE
PATXI ASTIBIA

Animatu eta etorri
jaialdia handi hau ikustera
Dohainik izango da

HERRIKO BESTETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

PROGRAMA LIBURUXKAK · KARTELAK · PEGATINAK · BOLETOAK

Eskatu informazio konpromisorik gabe!



Koskontako bidea, 7 1 · 31770 LESAKA · T. 948 635 458 · www.erran.eus | info@ttipi.eus

UZTAILAK 1, ortziralea

09:00 Diana Elutxa txarangarekin. **10:00** Mus txapelketa eliz-atarian. **11:30** Kanta eta dantza emanaldia haurrentzat Santa Luzia plazan. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **14:00** Kalderetea Intzakardin gazteek antolatuta (parte-hartze irekia. Ogia eta ikatza udalaren kontu). **Ondoren** Burrumba elektrotxaranga. **17:00** Rebeca Akademiako kideek eskainitako saioa Santa Luzia plazan. Flash move herritik barrena. **18:30** Bonba japoniarrak Santa Luzia plazan. **19:00** postre lehiaketa Santa Luzia plazan. **20:00** Puro Relajo Santa Luzia plazan **22:15** Zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30** Herriko taldeen kontzertuak: Dama, Muxu Beltza eta The Manflows.



UZTAILAK 2, larunbata

09:00 Diana Elutxa txarangarekin. **11:00** Zaharren meza. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **12:00** Euskal Herriko III. Mailako aizkora txapelketaren kanporaketa Bear Zanan. **Ondoren** Bertso-poteoa Elutxa txarangarekin eta pankarten ateratzea. **14:00** Herri bazkaria Intzakardin. **Ondoren** Errekaren igoera. **20:30-22:30** Oharkabe taldearekin dantzaldia **22:30** Zezensuzkoa Bear Zanan. **Ondoren** Gaixoa ni Elutxa txarangarekin haurrentzat. **00:30** Dantzaldia Oharkabe taldearekin eta besten akabaila.



Sampi Aragón S.A

Orain zonaldeko Ford zerbitzu ofiziala
T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

ZERGALAN 
aholkularitza

Zuen negozioen paper guztietaz
arduratuko gara:
kontabilitatea, zergak, langileak,

www.zergalan.es

ongi pasa bestak!

Eliza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395 - Faxe. 948 451 304

**DONEZTEBEKO
BESTAK 2016**

chainaren 28tik irailaren 2ra

gora san pedroak!



Herritar eta bisitari
guztioi, errespetuz
besta egin!

Doneztebeko Udala



ONGI PASA
BESTAK!

Clinica Dental
IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713

APEZTEGUIA

margoak eta barnizak hidrogarbigailuak
silikonak **LORATEGIA** lanerako jantziak
esku erreminta abeltzaintza **BURDINDEGIA**
baratzak konpresoreak ERREMINTA ELEKTRIKOA

Apezteguia Berria
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe
T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

*besta loriontsuak
opa dizkizuegu!*



apezteguiaelizalde
arquitectura y eficiencia energética
arkitektura eta eraginkortasun energetikoa



T. 626 261 990 | laura@apezteguiaelizalde.com | Inato Irazoki Etorbidea 2, DONEZTEBE
www.apezteguiaelizalde.com

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17TIK 19RA

Kontzertuz, dantzaz eta kirolez beteak datoz Altzateko bestak aurten

Igande
arratsaldean
pilota jaialdi
bikaina
antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Altzateko bestak ospatuko dituzte ekainaren 17tik 19rako aste-buruan, beti bezala egitarau zabalarekin.

ORTZIRALEA, EKAINAK 17

- 20:00etan txupinazoa eta ondoren karrikabuelta erraldoi, buruhandi eta txistulariekin.
- 22:30ean suzko zezena.
- 23:00etan kontzertuak: Neue Beruen eta Revolta Permanent taldeekin. Ondoren Djak.

LARUNBATA, EKAINAK 18

- 10:00etan plater tiraketa.
- 13:30ean karrikabuelta.
- 14:30ean zikiro jatea mundu guztia irekia. Haurrak 6 euro; hel-

duak 16 euro. Bazkaria girotzen mariatxiak izanen dira.

- 18:30ean poteoa akordeoilariarekin.
- 19:30ean funky dantzak plazan.
- 20:30ean L'Esbart dansaire de Granollers (Katalunia) eta Gure Txokoa dantza taldeen emanaldia.
- 23:00etan kontzertuak: Late to Scream eta Insohmnio taldeak. Ondoren Djak.

IGANDEA, EKAINAK 19

- 11:30ean haur jolasak, erraldoiak eta buruhandiak.
- 17:00etan pilota partidak. Sarrerak Agara prentsan. Lehen partidari, Aspe eta Asegarcerekin aurrekontratu duten pilotari gazteen finala jokatu da. Aspeko finalerdian, erraterako, Ugalde eta Iñigo Martinez, Ander Errandonea eta Olaizola III.aren kontra ariko dira ekainaren 17an Urrestillan, beraz, finalistetako bat herrikoa izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Batxilergo eta Heziketa Zikloen bukaera ospatu dute Toki Onan

Toki Ona institutuan Batxilergo eta Heziketa Zikloak bukatu dituzten ikasleek Merezimendu Orla jasotzeko ekitaldia egin zen maiatzaren 27an Kultur Etxean. Ekitaldi berean Ohorezko Matrikula-diploma ere jaso zuten Ane Igoa Miletorena eta Asier Osés Gainza ikasleek.



UTZITAKO ARGAZKIA

180 dantzari bildu dituzte XXIII. Dantzari Tiki Egunean

Gure Txokoa elkarteak antolatutako XXIII. Dantzari Tiki Eguna ospatu zen ekainaren 4an. Berako dantzariak Añorgako Arkaitz dantza taldea, Lezoko Muxika dantza taldea eta Urretxuko Lurran dantza taldea gonbidatu zituzte aurten goan. Guztira hamabi urtez behetik 180 dantzari bildu ziren. Goizean hiru ibilbide egin zituzten, Illekuetan, Burga plazan (argazkian) eta Agerran. Eguerdian, elkarrekin jaialdia eskaini zuten Altzaten.

Asegarceko finalisten kontra ariko dira (Bakaikoa eta Sarasa, Peña eta Mariezkurrenaren kontra aritzekoak dira ekainaren 18an Labriten). Ondotik, bi enpresetako profesionalen arteko partida jokatu da.

- 18:00etan bonba japoniarrak. Ondoren, zozketa.

FLASH

Suhiltzaile izateko gonbitea

Herriko suhiltzaile boluntario taldea jendez eskas dabil (10 bat lagun bakarrik) eta jende berria animatzeko gonbitea egin dute. Nahi duenak parkera hurbildu edo bonberoren bati erran.

Felix Errandonea XXXIX. Memoriala

41 txirrindularik parte hartu zuten maiatzaren 28an, Felix Errandonearen omenezko lasterketan. Toyota Armentia taldeko Ibon Ruiz nagusitu zen.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

JAIONE - COXOTEGIA
948 630 786
Altzate, 21 - BERA

ERRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Jubiloteakako erabiltzaileak eta elkarrizketatzaileran aritu diren Toki Ona institutuko 3. DBHko ikasleak.

GIZARTEA → JAKINDURIA ELKARTRUKATUZ

Atzoko eta gaurko gazteen harremanak sendotzen

Adinekoek euren bizipenak kontatu dizkiete gazteei

Gazte eta adinekoen arteko harremanak sustatzeko proiektua landu dute Toki Onako 3. DBHko ikasle talde batek eta Berako jubilotekan

dabiltzan batzuek. Gazteek adinekoek elkarrizketak egin dizkiete eta esperientzia aberasgarria izan dela azaldu diote TTPI-TTAPARI.

G. PIKABEA | BORTZIRIAK

«Sei urterekin behiaren aitzinean hasi ginen. Lehen ez zen jostetarik izaten, ez zen orain bezala. Orain eskolatik atera eta haurrak hor barna joaten dira». Maria Martikorena Arribillagaren hitzak dira (Bera, 90 urte). M^a Carmen Alzugairi Lazkanok (Arantza, 81 urte), berriz, «etxeak behiak eta auzokoenak» ibiltzen zituztela gaineratu du. «Lehen dena la-

na zen», azaldu du. Eta Jabier Biurarena Lukanbiok (Arantza, 73 urte) kontatu digunez, «15 urterekin atera nintzen etxetik lanera joateko». Eta jubilazioa hartu zuen arte Lesakako zubian, Artikutzan, soldadu boluntario, Frantzian mendian, ostatuan, fabrian eta lur-emaila lanetan aritu zen. Bada zerbait. Baina gaur egungo gazteentzat sinestezinak diren istorioak.

Halako kontuak eta bertze hainbertze kontatu dizkiote Mariak, M^a Carmenek, Jabierrek eta Berako jubilotekan dabiltzan bertze aunitzek Berako Toki Ona institutuko ikasle talde bati. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako hogeitabat gazte-ri, hain zuzen.

Gazteak eta adinekoak elkar ezagutzeko, eta bide batez, elkarren arteko harremanak

sustatzeko paratu zuen proiektu hau martxan Eurne Garro jubiloteakako arduradunak. Bere ustez, «bizi garen munduan, gazteak ez dira konturatzen bertze mundu bat badagoela eta adineko jendea nola bizi den». Hori izan zen abiapuntua. Garrok bi urte eta erdi daramatza jubilotekan eta lehenagotik, horrelako bertze ekimen bat ere egin zuten institutuko gazteek eta jubiloteakakoek. Eurnek ere «adinekoen bizitza gehiago zabaltzea» pentsatu zuen. «Toki Onara deitu eta haien aldetik erantzun ona izan genuen».

DBHko 3. mailako ikasleek, Etika ikasgaiaren barnean, Berako jubilotekan dabiltzan adineko batzuk elkarrizketatu dituzte Berako Lagun Handiak Elkartearen egoitzan. Huraxe baita jubilotekaren txokoa ere. Solasaldi horietan adinekoek euren esperientzia, oroitzapen eta sentimenduen berri eman diete, eta aditutakoarekin eta ikasitakoarekin ikasleek haien

guztien biografiak idatzi dizkiete.

‘EZ DITUZTE SINISTEN’

Martikorena, Alzugairi eta Biurarena bat datoz honetan: «gazteek ez dituzte sinisten guk erraten ditugun gauzak. Nola bizituak garen aditzen dutenean, harritu egiten dira». Beraien irudiko, «bizitza onerako aldatu da», baina aldi berean, aitortu digute, «gu kontent bi-



GAZTEAK ETA ADINEKOAK

«Bizi garen munduan, gazteak ez dira konturatzen adineko jendea nola bizi den».

Eurne GARRO
Jubiloteakako arduraduna



GAZTEAK SOLASEAN

«Lehen lan gehiago egiten zuten eta eskolara aunitzez ere guttiago joaten ziren. Beti base-
rrian lanean aritzen ziren eta herrira ez ziren
aunitzik jeisten».

Aimar ZUBIETA eta Kattalin ODRIOZOLA
Arantza eta Lesakako gazteak, 14 urte

zi ginela, ez genuen ber-
terik ezagutzen».

Aimar Zubietta Larre-
txea (Arantza, 14 urte)
eta Kattalin Odriozola
Muxika (Lesaka, 14 ur-
te) dira elkarriketatzen
aritu diren gazteetako
batzuk eta euren eta el-
karrizketatu dituztenen
bizitzaren artean «alda-
keta haundia» somatu
dutela erran digute: «le-
hen lan gehiago egiten
zuten eta eskolara auni-
tzez ere guttiago joaten
ziren. Beti baserrian la-
nean aritzen ziren eta
herrira ez ziren aunitzik
jaisten».

'IKASI? BAI ALA BAI'

Aholkuak emateko
ere probestu dituzte so-
lasaldiak. «Ahalik eta ge-
hien ikasteko erran digu-
te, ikasteak bide aunitz
irekitzen dituela», aipa-
tu digute Zubietak eta
Odriozolak. «Bai ala bai
ikasteko erran diegu.
Ikasi gabe bizitzeko na-
hikoak izandu gara gu»,
dio Biurrarenak: «esko-
lan miseria bat ibili gi-
nen». Martikorenak
azaldu digunez «etxe-
an lana baldin bazen, ez
ginen eskolara joaten». Eta gauza bera baieztatu digu Alzugaraik: «14 urte bitarte ibili nintzen, baina etxean zerbait

egin beharra bazen, ez
ginen eskolara joaten».

Hizkuntzaren gaia
ere ekarri nahi izan dute
mahai-gainera. Bertze-
lako garaiak ziren. Biur-
rarenak dio «erdaraz ez
jakiteagatik gorriak iku-
si» zituela soldadutzan.
Euskaldun elebakarrak
izaki, «hizkuntza zailta-
sun haundia» izan zela
aipatu digu Alzugaraik
ere. Eta gauza bera Mar-
tikorenak ere: «eskolan
hala aginduta, lezioa bu-
ruz ikasten genuen, bai-
na esplikatzeke erraten
baziguten, ez genekien,
ez baikenuen ulertzen». Gaur egun gazteentzat,
ordea, hori pentsaezi-
na da.

Aldeak alde, batzu-
en eta bertzeen artean
60-75 urteko adin tar-
tea izan arren, agerian
gelditu da egitasmo ho-
nen emaitza: «gustura
ibili gara». Halaxe baieztatu digute 90 urte di-
tuen Martikorenak, 81
urte dituen Alzugaraik,
73 dituen Biurrarenak
eta 14 dituzten Zubie-
tak eta Odriozolak.
Edurenek berak ere «ha-
gitz balorazio positiboa»
egin digu. Kontent, irria
ezpainean agurtu dute
denek elkar. Adina ez
da inondik inora ozto-
po izan.



ADINEKOAK SOLASEAN

«Nola bizituak garen
aditzen dutenean,
gazteak harrituak
gelditzen dira».

Maria MARTIKORENA
Beratarra, 90 urte

ADINEKOAK SOLASEAN

«Etxean lanen bat
egin beharra baldin
bazen, ez ginen
eskolara joaten».

M^a Carmen ALZUGARAI
Arantzarra, 81 urte

ADINEKOAK SOLASEAN

«Bai ala bai, ikasteko
erran diegu. Ikasi
gabe bizitzeko nahi-
koak izandu gara gu».

Jabier BIURRARENA
Arantzarra, 73 urte



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Toki Onako gazteak jubilotekako adinekoei elkarriketak egiten.

EDURNE GARRO I JUBILOTEKAKO ARDURADUNA

«Ilusioa gure bizitzako motorra da eta hori
zaindu behar dugula erraten diet»

Alderdi fisikoa (luzaketak, koordi-
nazioa, oreka), alderdi kognitiboa
(memoria ariketak, arreta, komuni-
kazioa eta irudimena) eta alderdi so-
ziala eta ludikoa (taldeko ariketak,
musikoterapia, pintura eta eskula-
nak) lantzen dituzte jubilotekan. As-
telehen, asteazken eta ortziralek
10:00etatik 13:00etara biltzen dira
Beran, Lagun Handia Elkartearen
egoitzan. Eta astearte eta ortzegu-
netan, ordu berean, Lesakan.

Urte batzuk baditu Bortzirietako
Jendarte Zerbitzuen Mankomunita-
teak eta Bera eta Lesakako Udalek
bultzaturiko ekimen honek. Eta gaur
egun 18-19 lagun elkartzen dira Be-
ran eta 15 Lesakan. Edurne Garro
gizarte langilea da bi herrietako ar-

duraduna eta adinekoak «hagitz gus-
tura egoten direla» azpimarratzea-
ren batera, «euren ongizatea lantze-
ko hainbat dinamika egiten ditugu-
la» adierazi digu: solasaldiak, gim-
nasia, musikoterapia, tailerrak, es-
kulanak... Kultur ekitaldiren baten
aitzakiaekin, egoitzatik kanpo ere
ateratzen dira. Eta bi herrietakoak
urtean bi aldiz elkartzen omen dira.
«Familia bat bezala gara», dio Garrok.
Nabarmendu digunez, «ilusioa gu-
re bizitzako motorra da eta hori zain-
du behar dugula erraten diet. Eta
eurek denera animatzen dira». Bide
batez, jendeari animatzeko deia ere
luzatu die: «merez duela, bakoitza-
ren ongizatearentzat hagitz ona dela-
ko eta proiektu prebentiboa delako».

LESAKA

OSPAKIZUNAK → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

'Euskarak tzipa eginak' erronka San Juan bezperako bestarako

Euskararen alde bustiz bideoa grabatzeko deia egin dute

Aitor AROTZENA

Euskarak tzipa egi-na(k) lelopean, euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina abiatu du Lesakako Euskara Batzordeak, euskararen erabilerak zer nolako garrantzia duen azpimarratzeko eta denok bustitzea zein garrantzitsua den azaltzeko. Erronka hau lesakar guziei luza-tu nahi diete eta nahi bezala egiten ahal dute: banaka, kuadrilaka, taldeka... elkarte, kirol talde, musika talde, kultur talde, ikastetxe, lantoki, komertzio, ikasle, irakasle... «Elkartu, zuen burua urez/euskaraz busti; eta kanpainaren leloa aipatuz bideoan grabatu». Bideoa helbide honetara igorri be-

har da: lesakakoeuskarabatzordea@gmail.com

Facebook edo twitterera ere igortzen ahal da bideoa, Lesakako euskara batzordeko facebook orrian zintzilikatuz edota [@lesakaeusbatz](https://twitter.com/lesakaeusbatz) twitter kontura bidaliz.

SAN JUAN BEZPERA

Erronka hau, San Juan bezperako ohiko ospakizunarekin lotu nahi du Euskara Batzordeak. Ekainaren 23an, "San Juan Putzua" irudikatuz, aspaldi Lesakan egiten zena egun horretan, bustitze erraldi bat egingen dute.

Hau eta gero, ekitaldia izanen da, sua piztu-k da, afari herriko autogestionatua eta dantzaldia plazan. Aurten, sua piztea, Bortzirietako Bertso Eskolaren esku utzi dute, ikasturte honetan sortu zenaren 25. urteurrena da eta. Beraiek idatzi eta irakurriko dute aurtengo manifestua.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Ermuako Jon Idigoras garaile margo azkarreko lehiaketan

Elias Garraldaren omenez Beti Gaztek laugarren aldiz antolatutako margo azkarreko lehiaketa Ermuako Jon Idigorasek irabazi zuen ekainaren 5ean, 500 euroko saria lortuz. 300 euroko bigarren saria Castro Urdialeseko (Kantabria) Alipio Ruano lortu zuen eta herriko margolariek egindako margolan onenari emandako 150 euroko saria, Alejandro Ordokik. Umeen artean, LH1-2 mailan, lehen saria Ainize Martinezentzat izan zen eta bigarrena Amaur ahizpa bixkiarentzat. LH3-4 mailan, Nahia Pumar-ek eraman zuen lehen saria eta Kattalin Txoperenak bigarrena. Lexuri Arotzenak epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen. LH5-6 mailan, lehen saria Gaizka Yustek eskuratu zuen eta bigarrena Sara Txoperenak.

Euskara Plana eskatu dute herriko 28 talde eta elkarte

2015eko azaroaren 7an utzi zuen bertan behera ordura arte indarrean zegoen euskara plana Udalak. Geroztik ez du bertzerik proposatu, eta «Lesaka umezurtz dago hizkuntza politikari dagokionez», Euskara Batzordetik aipatu dutenez. Batzordeak hainbat adibide bildu ditu, herriko euskal hiztunen hizkuntza eskubideak urratzen dituztenak, eta txosten batean jaso. Txosten hori herriko 28 talde, elkarte eta eragilek sinatu dute, eta ekainaren 9an eramanen dituzte Herriko Etxera. Txostenak eskaera sinplea eta ar-



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Ezagutu Dezagun Lesaka sari banaketa

Beti Gaztek antolatutako *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 3an. LH1-2 mailan, Maddi Zubieta, Maddi Hoyos, Beñat Criado eta Ekhi Rojo; LH3-4 mailan Naiara Ubiaria, Julen Ubiaria, Beñat Eskudero eta Zuriñe Yuste eta LH5-6 mailan, Iraia Etxarte, Jon Ander Ruiz, Orti Arotzena eta Ainhize Garro izan dira saridunak.

gia dakar: Udalak Nafarroako Euskararen Legea bete dezala, bi hizkuntza ofizialak gutxienez email berean

paratuz. Horretarako, euskara plana berreskuratu dezala, edo bertzela berria diseinatu eta paratu dezala martxan.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satellite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17 ETA 19AN

Haurraren Eguna ekitaldiz betea dator aurten ere

Eskola, udala, Guraso Elkarte eta Altxataren artean antolatua

Iruñe ELIZAGOIEN

Bertze urte batez Landagain eskola, udala, Guraso Elkarte eta Altxataren artean antolatu dute Haurraren Eguna.

Azken urteetan bezala, ortziralean, ekainak 7, 11:00etatik 13:00etara Landagain eskolako ateak irekiko zaizkio herriari, ikasle-ek zuzendutako erakus-

keta eta zerbait gehiago (sorpresa) eskaintzeko.

Igandean berriz, eskola 10:15etik 12:00etara irekiko da nahi duenak erakusketa ikusteko. 12:30ean plazan XXVIII. ipuin topaketa egingen da eta ondotik Guraso elkarteak antolatutako bazkaria izanen da frontoian. Udalaren eskutik goizean trikitilariak giroa alaituko dute eta arratsaldeko 15:30ean 3-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako *Bertsolharitza* ikuskizuna izanen da.

San Juan sua

Aitzineko urteetan be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Perukiñeneko Salvadora Arburua ehun urte bete ditu

Maiatzaren 30ean bete zuen mendea Perukiñeneko Salvadora Arburua Arribillagak. Bere urtebetetze egunean lore-xorta jaso zuen herriaren izenean, Miguel Mari Irigoien alkatearen eskutik. Larraburua Jubilatuen elkarteak ere oroigarria eman zion.

zala, ekainaren 23rako San Juan Sua antolatu du Altxatak. Ilunabarrean bixtuko da sua eta herriko txistulari eta trikitilariak giroa alaituko dute. Ondotik bakoitzak etxetik eramandako janariarekin berendu afaria egingen dute frontoian.

Ba al zenekien

Hemendik aitzinera Etxalarko Udalaren posta elektronikoa udala@etxalar.eus izanen dela



ARGAZKIAK: AMAIA ZELAIETA, ITSASO ELIZAGOIEN ETA IRUÑE ELIZAGOIEN

Giro ederra izan da aurten ere gasna feria lehiaketan

Ekainaren 5ean ospatu zen Altxatak antolatutako XXIV. gasna feria. 15 gasna aurkeztu ziren, 8 herrikoak. Lehenengo postuan Orabideko Pello Pegneguy gelditu zen (120 euro), bigarren postuan Urdazubiko Etxalekua gasnategia (90 euro) eta hirugarren postuan Lekarozko Julen Arburua (75 euro). Herrikoen artean Ursua eta Basateko bordara joan ziren lehen bi sariak. III. Goxo topaketa aurkeztutako zazpi postreen artean zozketatuko saskia Kontxesi Arangoari egokitu zitzaion. Etxalarko I. Ahari lehiaketara 7 plazaratu ziren eta irabazlea Olazarkoia izan zen. Saski eder bat eta urrezko pulunpa irabazi zituen. Herri bazkari jendetsuan (140 lagun), Bankako kantariak giro ederra jarri zuten.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Getariako trikitixa txapelketan

Maiatzaren 28an ospatu zen Getariako XVII. Trikitixa txapelketa. Zortzi bikotek partu hartu zuten eta trikitixa, porrusalda eta pot-pourria joz lan bikaina egin zuten Ainhua Telletxeak eta Martxel Larrazak.



ARGAZKIA: REBEKA ARANZADI

Lehen jaunartzea

Maiatzaren 29an Daniela Calvo, Amañur Elizalde eta Ane Arburua Lehen Jaunartzea egin zuten elizan.

ARANTZA

KULTURA → KARTEL LEHIAKETA

Leire Etxeberria iraizoztarraren kartelak iragarriko du aurtengo Arantza Rock

Hamaika proposamenen artean berea aukeratu du Gazte Asanbladak

Nerea ALTZURI

Abuztuaren 20an egingen den Arantza Rock jaialdiaren 21. edizioak badu kartela. Leire Etxeberria iraizoztarrak egindakoa, hain zuzen. Gazte Asanbladak antolaturiko I. Kartel Lehiaketan berea aukeratu baitute.

Guztira hamaika proposamen aurkeztu dira lehiaketara eta Gazte Asanbladako kideek kartel lehiaketan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete: «Ian ederrak aurkeztu baitituzte eta eurei esker lehiaketa arrakastatsua izan da».



Aurtengo Arantza Rock-eko kartela.

Udaleku irekiak

Bortzirietako Euskarra Mankomunitatearen ekimenez, uztailaren 4an hasiko da udaleku irekien denboraldia. Uztailaren 29ra bitarte, ongi pasatzeko aukera ederra izanen dute 3 eta 12 urteko haurrek goizeko, 10:00etatik 13:00-etara.

Lehenbiziko hamabortzaldian, 26 haurrek eman dute izena eta bigarren hamabortzaldian, 24 neska-mutikok. Hiru begirale ibiliko dira eurekin.

400/1.000 PROGRAMAREN BAITAN

Azken eguzkilorea antzezlanaren igande honetan plazan

Patata Tropikala antzerki laborategiak aurkeztuta, *Azken Eguzkilorea* lana ikusgai izanen da plazan igande honetan, ekainak 19. Nafarroako Gobernuak 400 eta 1.000 biztanle artean dituzten herrietan antolatutako duen 400/1.000 programaren baitan izanen da.

Haurrentzako antzerkia da eta mamiai dagokionez, Ongi Etorri baserriko Kattalin herrira jeitsi eta bere lagun guztiak desagertu direla ohartuko da. Herrian ez du gertatu denaz inongo erantzunik topatuko. Adorez bete eta Mari Jainkosari galdetzeraz abiatuko da, nahiz eta basoan betirako harrapatuta gelditu daitekeela jakin. Hemendik aintzineraz, Kattalin mitologian murgilduko da haziko den Azken Eguzkilorea topatzeko. Bertan, Mari, Basajaun, Tartalo, Galtzagorriak eta Jentilak ezagutuko ditu. Baita Gaueko beldurgarria ere. Abentura dibertigarria izanen da, eta txotxongiloak, maskarak, antzerkia, umorea eta irudimena uztartuko dituzte, euskal kultura landuz. 18:00etan hasiko da eta eguraldi txarra eginez gero, frontoian izanen da.



ARGAZKIAK: ARANTZAKO ESKOLA

Eskolako kanpaldiak eta ikasbidaia

Urteroko tenore berean, eskolako ikasle eta irakasleak kanpaldietan egon dira, Etxalarko eta Igantziko eskoletako lagunekin batera. Joan den maiatzaren 17 eta 18an Lehen zikloko lagunak Hondarribian ibili ziren. Hondartzaz gozatu zuten eta Oiztzingo Arditurri meategia bisitatu zuten. Maiatzaren 19 eta 20an, berriz, Haur Hezkuntzako ikasleak eta irakasleak Zugarramurdiko Graxiana Aterpetxera joan ziren. Bigarren ziklokoak maiatzaren 23, 24 eta 25ean, Lizarrako egonaldiarekin gozatu zuten. DBHkoak, aldiz, aste honetan Londresen ibiliko dira ikasbidaian.

IGANTZIARREN TARIFA BERAK

Igantzikiko igerilekuko txartelak Herriko Etxean eska daitezke

Bi herrietako udalek egindako akordioari esker, aranztarrek igantziarren tarifa berak izanen dituzte aurtengo ere Igantziko igerilekuan. Interesaturik egonez gero, Herriko Etxean apunta daiteke, izena eman eta dirua eramanez, eta txartelak egun berean arratsaldean igerilekuan hartzeko aukera izanen da. Aipatu, igerilekuak zabalik daudela eta irailaren 13ra arte hala egon direla. Hauek dira tarifak:

	Denboraldi osoa	Egun batekoa
18 urtetik goiti	48 euro	6 euro
11-18 urte	28 euro	4 euro
4-10 urte	18 euro	3 euro
4 urtetik beheiti	Dohainik	Dohainik

Denboraldi osoak izan beharrean, hilabete bat edo birako txartela ere eska daiteke: ekainaren 13tik irailaren 13ra, uztailaren 13tik irailaren 13ra edo abuztuaren 13tik irailaren 13ra. Eskaeraren arabera kobratuko da.

GIZARTEA → EKAINAREN 8AN

Udala kudeatuko duen batzordea izendatu du Nafarroako Gobernuak

Zazpi lagunen artean aukeratuko dute orain alkatea

TTIPI-TTAPA

2015eko udal hauteskundetan ez zen zerrendarik aurkeztu Herriko Etxean lan egiteko prest. Hortaz, lehenengo legealdiko udal ordezkariak aritu dira jardunean azken urtean, orain arte. Izan ere, ekainaren 8an Nafarroako Gobernuak hartutako akordioan, Igantziko udala kudeatuko duen batzordea izendatu zuten. Zazpi pertsonak osatzen dute eta beraien artean izendatuko dute orain presidentea, hau da, herriko alkatea

izanen dena legealdi honetan falta diren hiru urteetan.

Joseba Sarasola Salegi, Juan Carlos Unanua Navarro, Aiert Regi Telletxea, Raquel Migelena Telletxea, Manuel Telletxea Iparragire, Jone Urtxegi Dorronsoro eta Ana Jose Irigoien Etxebeste dira Gobernuak izendatutako zazpi pertsonak.

Udal igerilekua martxan

Ekainaren 11tik irailaren 11ra zabalik izanen dira udal igerilekuak. Ibai eta Arkaitz Regi Zamorano anaiak izanen dira sorosleak eta Jone Zelarainek du ostatuaren ardura.

Tarifei dagokienez, uda osorako abonua 48 eurotan dago 18 urtetik



ARGAZKIA: IRRISARRI LAND

Zaldiaren II. Azoka ospatu dute Irrisarrin


Zaldiaren II. Azoka hartu zuen ekaineko lehen asteburuan Irrisari Land parkeak. Ekitaldiak, ortziral arratsean egin zen afari-solasaldiarekin abiatu ziren. Aspaldiko urteetan doma klasikoan profesionala den Jon Lekuberria lesakarra izan zen hizlari eta bere eguneroko bizimoduaren berri eman zuen, argazki eta bideoen bidez. Larunbatean, zaldiz egiteko 4-5 orduko ibilbidea antolatu zuten Bortzirietako mendietan barna, 18 kilometro luze eta 1.000 metroko desnibela zuena. Gero, partehartzaileentzako bazkaria izan zen. Larunbat arratsaldean, parkean zaldiendako egokituta dagoen eremuan, igandeko lehiaketarako entrenatzeko aukera izan zuten zaldunek eta zaldiek. Larunbat arratsean mexikar afaria izan zuten eta afalondoan, mariatxi-karaokea, abeslari onenentzat sariakin. Igande goizean, argazkian ageri den bezala, Irrisari Land hipika lehiaketa egin zen, oztopo-ginkana, zapiaren jokua eta lanza eta palio jokuekin. Hemen ere sariak izan ziren zaldun trebeenentzat, baita zaldi dotoreenarentzat ere.

goitiko herritar eta arantzarentzat eta 75 eurotan kanpotarrentzat; 11 eta 18 urte bitartekoek, 28 edo 43 euro ordaindu behar dute eta 4 eta 10 urte bitartekoek, 18 edo 29 euro. Uztailan edo abuztuan eginda, nos-

ki, abonua prezioa ere aldatzen da.

Egun bakarreko sarrerari dagokionez, egun guztikoa 6 eurokoa izanen da 18 urtetik goitikoentzat, 4 eurokoa 11-18 urte artekoentzat eta 3 eurokoa 4-10 urte artekoentzat.

Arratsaldeko 5etatik aitzinera joanez gero, prezio erdia izanen da. Hamabortz lagunetik goitiko taldeentzako prezioetan euro 1 guttiago kobratuko zaie eguneko sarrera eta familia ugariak ere %20ko deskontua izanen dute.


okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 • BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

Terrazako eta lorategiko mobleen erakusketa eta aukera zabala

josta mendi

Udarako jostailu guztiak Jostamendin Letxunborro etorb., 86 • IRUN

KULTURA

KULTURA → EKAINAREN 3AN BERA KO KULTUR ETXEAN

Baztan-Bidasoko 29. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dituzte

125 lan aurkeztu dira eta maila nagusian Julen Zelaieta nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoko XXIX. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 3an Berako Kultur Etxean. Guztira 125 lan aurkeztu dira.

A mailan, (10 urte arte), lehen saria Berako Amaur Goñi Elortzak lortu du *Mendira joan gara* lanarekin. Bigarren saria, Asier Barberena



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Baztan-Bidasoaldeko 29. Bertsopaper lehiaketako saridunak, Berako Kultur Etxean.

baztandarrak eskuratu du *Herriko bestak* izeneko bertso-xortarengatik.

B mailan (11-14 urte), lehen saria Berako Ekhiñe Zapien Arlegik

lortu du, *Bizi berri baten bila* lanarekin. Bigarren saria, Igantziko Nintze Urtxegi Urrarentzat izan da, *Bortxaketa* lanarengatik.

C mailan (15-18 ur-

te) lehen saria Oronoz-Mugairiko Olaia Inziartek eskuratu du, *Herria eta hizkuntza* lanarekin eta bigarren saria, Peio Iriarte Etxeberria irundarrarentzat izan da,

Jaiotza-Heriotza lanarengatik.

D maila nagusian (18 urtetik goiti), azken bi urteetan bezala, Berako Julen Zelaieta Iriarte nagusitu da, *Asmatu huen Joxe Manuel bertso-xortarekin*. Bigarren saria, Lesakako Aitor Arotzena Albitzuk lortu du, *Behobia-Donostiako nobatoa* lanarekin. Herreran preso dagoen Joseba Aranibar Almanoz beratarak epaimahaiaren aipamena jaso du, *Barrote artetik txoriari* bertso-xortarekin. Amak, neska-lagunak eta semeak jaso dute saria.

Sari banaketaren aitzinetik, Bortzirietako bertso eskoletako titiki-ekienek antzerkitxoak egin zituzten eta ondotik, partehartzaileentzako berendua izan zen.

Jaio berrientzako behar duzun guztia

Josta Mendi Titikia

Bezero txartelarekin sekulako abantailak
Eskaintza bereziak

GIPUZKOAKO 500m² erakusketarik
zabalena duen puerikultura denda
Easo, 51 • Donostia • T. 943 470 244

Artaleku, 3 • IRUN • T. 943 638 223
www.maxibebé.org

maxibebé

TAXI XARUTA

XARUTA TAXIA

Besta egin lasai
eta zuek nahi duzuenean
eramanen zaituztet etxera
24 orduko zerbitzua

LESAKA
Tel. 619 974 252

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: Bureau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17TIK 19RA

Asteburu Kulturalerako dena prest dute

Igandean, artisau feria eta gazta lehiaketa

Maider PETRIRENA

Ekitaldiz betea dator aurtien ere Asteburu Kulturala.

ORTZIRALEA, EKAINAK 17

- 16:30 Txokolatada.
- 17:00-19:00 Jokulandia.
- 19:30 Antonio Andevaloren eskutik *El hombre del saco* magia eta umorea nahastuen duen emanaldia helduentzat Ulibeltzak elkartearen. Ondoren

afari autogestionatua.

- 22:00 mus txapelketa Bustitz ostatuan.

LARUNBATA, EKAINAK 18

- 08:30 mendi ibilaldia oinez edo bizikletaz Suspirora (plazan elkartuta).
- 11:00-13:00 Jokulandia.
- 14:00 Bazkaria Ariztigailan kanpinean.
- 16:00-19:00 Jokulandia.

- 18:30 trikitixa jaialdia.
- 19:30 Mendi abesbatzaren emanaldia elizan.

IGANDEA, EKAINAK 19

- 10:00-14:00 VIII. Artisau feria eta gazta lehiaketa.
- 16:30-19:30 artisau feria.
- 19:30 gazta lehiaketako sari banaketa eta zareederbaten zozketa.

Ba al zenekien

Izaban egin zen XII Camille Extreme Lasterketan Joseba Gartzia eta Eneko Herrerak parte hartu dutela?



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Agorreta Musika Eskolaren Udaberriko kontzertua Sunbillan

Doneztebeko Agorreta Musika Eskolak udaberriko kontzertua Sunbillako elizan eskaini zuten maiatzaren 30ean. Malerreko herri ezberdinetakoak parte hartu zuten eta horien artean hiru sunbildar genituen. Alde batetik Egoi Irigoien eta Markel Agesta txistua jotzen (taldean eta bikote lana) eta bertetik Ainara Antuña gitarra eta abeslari lanetan. Kontzertu ederra eskaini zuten.



ARGAZKIAK: NIEVES BIURRARENA ETA MAIDER PETRIRENA

Bestaberri Eguna

Maiatzaren 29an Besta berri eguna ospatu zen. Denbora lagun, urteroko prozesioa egiteko aukera izan zen. Aldaketa tiki bat egin behar izan zen banderaren dantza egin ahal izateko herriko eliza obretan dagoelako. Egun honetan jaunartzea egin duten neska-mutikoek prozesioan loreak botatzen gozatu zuten.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Sunbildarrak Malerreko Egunean

Bosgarren urtez Malerrekoaren eguna ospatu da. Aurtengoan Iturenen ospatu zen. Sunbildarrek parte hartzea haundia izan zuten. Goizean, ttikienek, ertainek eta helduek dantzak eskaini zituzten. Ondoren Mendaurre trikitixa-pandero eskolarekin herriko trikitilari eta panderojole kuadrila aritu zen. Eguerdian *Malerreka Leihotik begira* lanen irakurketa eta sari banaketa egin ziren eta bi sunbildar genituen saridunen artean. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek komikia egin beharra zuten eta irabazlea Sunbillako Uxue Armendariz izan zen. DBH 3. eta 4. mailakoek berriz bertso paperak egin beharra zituzten eta irabazlea ere sunbildarra suertatu zen, Zaira Gaztelumendi, *Sunbillako hizkuntzak* lanarekin. Zorionak biei. Eguerdian paella jaten eta egunaz gozatzen ere sunbildarrak aunitz egon ginen. Arratsaldean, berriz, Mus Txapelketaren finala izan zen eta herriko bi bikotek parte hartu zuten: Itxegi-Mañoli eta Jose Luis-Jose Miguel. Azken hauek laugarren postua lortu zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bertsoa eta antzerkia uztarturik

Bertsolaritza ikasten aritu den herriko neska-mutiko kuadrila batek, Estitxu Arozena irakaslearekin ikasitakoa antzerki baten bidez antzeztu zuten. Master Chef antzerki bertsokatua, hain zuzen.

DONEZTEBE

GIZARTEA → MOZIOA AHOBATEZ ONARTU DA

ETBren emisioak normalizatzea eskatu du Udalak

Doneztebe homofobia, transfobia, lesbofobia, bifobia eta interfobiariak gabeko udalerria

Marga ERDOZAIN

Maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran aho batez onartu zen EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa (8 zinegotzi bertaratu ziren: 6 EH Bildukoak eta 2 PSNkoak), Euskal Telebistaren emisioak normalizatzea eskatuz.

Udalak Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren jardunbidea errefusatz zera eska-

tzen du: Espainiako Gobernuak zigor-espeditentea bertan behera utz dezala, ekipoak eta instalazioak prezintatzeko urratsak egiteari uko egin diezaiola eta ETB Nafarroan multiplex bidez emititu ahal izan dezan eman beharreko urratsak eman ditzala. Halaber, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Parlamentuaren eskaera hori bera egin diezaiola Espainako Gobernuari.

Bertze aldetik, EH Bilduk aurkeztutako bertzeko mozio bat ere aho batez onartu zen. Horren arabera Doneztebek konpromisoa hartzen du pertsonen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta duintasunaren gutxiespen oro ez



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestetako udal txikia aukeratu dute

Argazkian ageri diren neska eta mutikoez hartuko dute ekainaren 30ean Doneztebeko agintea. Ekaitz San Martin izanen da Xantiri egun batez aginte makila kenduko diona eta alboan lan talde ederra izanen du: epailea Oier Apezetxea, banderaduna David Mitxeo eta zinegotziak: Luzia Sanz, Nerea Arregi, Luna Tovar, Haizea Sanz, Joritz Iribarren, Eñaut Setoain, Eki Zulaika eta Mikel Juanotena. Seguru herria ongi zainduko dutela! Beharbada, etorkizuneko alkatea argazki honetan egonen da...

onartzeko, edozein dela ere pertsonen sexu aukera eta genero orientazioa. Onartutako mozioak ere berrestu du sexu aukeragatik edo genero identitateagatik inor erasotzen edo gutxiensten dutenak ez dituela herriak onartuko. Berdintasunaren aldeko lanean pauso garrantzitsua da udalak emandakoa.

Ba al zenekien

Osasunak antolatutako udako campusa edo egonaldia ekainaren 22tik 27ra burutuko dela herrian. 4-8 urte arteko umetxoek kirola eta aisialdia uztartuz pasatuko dituzte egun horiek.

FLASH

Ikasturte bukaerako kontzertuak

Agorreta musika eskolak ikasturte bukaerako kontzertuak ekainaren 15ean (gitarra kontzertua) eta 18an aurreikusitako ditu.

Firin Farandula antzerki taldea

Ekainaren 17an, 19:30ean zineman Firin Farandula antzerki taldearen eskutik William Shakespeareren *Mucho ruido y pocas nueces* izeneko antzezlanaren emanaldia izanen da.

San Miguel ikastetxeko ikasturte bukaera

Ekainaren 19an San Miguel ikastetxeko ikasturte bukaerako besta ospatuko da (bazkaria, jokoa, dj Pali eta apar besta).

San Juan suak

Ekainaren 23an uda agurtzeko San Juan Suak piztuko dira, aurten suekin batera afari autogestionatua antolatu da musikak lagunduta.

Benito Lertxundiren emanaldia

Benito Lertxundiren kontzertua izanen da ekainaren 25ean, 22:00etan Ezkurra pilotalekuan. Sarrerak 22 eurotan eskura daitezke Titi, El Cafe eta Ostizen. Kontzertu egunean 25 eurotan erosteko aukera ere izanen da.

38. EDIZIOA IZANEN DA

Errekaren herri krosa ekainaren 26an

M. ERDOZAIN

XXXVIII. edizioa izanen du aurten Herri Krosak eta 40. urteurrena ospatzeko eta herriko bestak girotzeko baliagarria izanen da. Urtetik urtera parte hartzaile kopuruaren markak gaituz joan da, banazbertze 200 biltzen baititu.

Txikiak, 10:30ean hasiko dute lasterketa polit hau eta gero, mailaz mailako mutiko eta neskek Doneztebeko ibilbideari kolorea emanen diote. 11.30etan lasterketa nagusia izanen da (kadete, jubenik, senior eta beteranoak). Berrikuntza gisa aipatu behar da www.herrikrosa.eus helbidean 5 euro ordainduta izena eman daitekeela. Lasterketa egunean, be-

riz, eta 11ak arte, dortsala 7 eurotan eskuratuko da. Txikiak ez dute ordainduko.

Aurreko urteetan lasterketa honek izan duen maila kontuan hartuta 2016ko aurreikuspenak ere onak dira. Ea Vanessa Patxa, Maika Ariztegi, Salima Charki, Aicha Bani eta Monica Telletxea korrikalari handien marka eta bertaratzeko berdintzen den. Eta gizezkoen mailan Gonzal Sanz, Sabin Arruti, Antonio Etxeberria eta Abdelhadi Habassaren parte-hartzea izaten dugun. Baina batez ere ea 200 korrikalari baino gehiago zapatilak jantzita ateratzen diren lasterketa herriko kutsua gal ez dadin.

GIZARTEA → EKAINAREN 3 ETA 4AN

Giro ederrean joan da aurtengoan ere Errekaren Eguna

Joseba Legarrak, Niko Mindegiak eta Javier Blasek ongi merezitako omenaldiak jaso zituzten

TTIPI-TTAPA

Giro ederrean joan zen ekainaren 4an Errekaren Eguna. Kirola oinarri hartuta, hainbat ekitaldi izan ziren eta aipatzekoak izan ziren Joseba Legarrak, Niko Mindegiak eta Errekaren sortzaile izan zen Javier Blasek jasotako

omenaldiak.

Errekaren Eguneko ospakizunak bezperan hasi ziren. Samba San Miguelek ikusentzunezko polita eskaini zuen zineman eta Santa Luzia plazako mus txapelketan 45 bikotek hartu zuten parte. Joseba Juanenak eta Mitxelek lortu zuten 300 euroko saria, finalean Patxiku Apeztegia eta Jesus Mitxelenari irabazita.

Baina ekitaldirik gehienak larunbatean izan ziren, gehienak kirolarekin eta, batez ere, eskubaloiarekin lotuak. Goizean harrobiko jokalaritiki enen txanda izan zen, baita judo es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Legarra jokalaria eta presidentea omendu zuten bere taldekideek.

kolakoena ere. Emakume senior eta mutiko kadeteen arteko partida aski berdindua izan zen eta azkenean emakumeak gol bakarrarengatik nagusitu ziren. Gainera, entrenatzaile Illar eta Juan Mari Artazkoz-i ere oparitxo egin zieten neskek eta kadeteek ere proiektzioa eta bertsioak eskaini zizkieten entrenatzaileei. Segidan, beterrak eta seniorrak aritu ziren, Niko Mindegia

izar zutela. Bertze kanpoko izarrik ez da izan aurtengoan, egutegiak hala aginduta, baina etxekoek ere partida bikaina jokatu zuten. A-tsedenaldirian Erreka dantza taldekoek emanaldia eskaini zuten eta Joseba Legarra Erreka-ko jokalaria eta presidenteari ere omenaldia eskaini zioten jokalariek.

Arratsaldeko ekitaldiak ederki joan baziren, zer erran Santa Luzia Plazako afariaz. 180

lagun bildu ziren karpazpian afaltzera. Errekaren izena Europa eta munduan zehar zabaldutako duen Niko Mindegia omendu zuten lehenik eta honek esker oneko hitzak eskaini zizkien bueltan bertaratu zirenei. Azkenik, Javier Blasek ere omenaldia eskaini zioten. 1976an Erreka elkartearen sortzaileetako bat izan zen Javier Blas eta berragoratu zuten Errekako bazkideek.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Erreka, igerileku eta hondartzarako toallak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ITUREN

GIZARTEA → UDALAK

Bestetako kartel lehiaketa deitu du aurten ere

Ekainaren 23ra bitarte aurkez daitezke lanak

Arkaitz MINDEGIA

Bestak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak. 16 urtetik goitiko edozeinek hartu dezake parte eta ekainaren 23a izanen da lanak aurkezteko hondar eguna. Irabazleak 100 euro irabaziko ditu.

Kartela egiteko gaia eta teknika irekiak izanen dira. Formatuari dagokienez, lanak A3 tamainan inprimatuko dira eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 ppp guttieneko erresoluzioaz, edozein teknika erabiliz.

Iturengo Bestak 2016 Uztailak 15-18 agertu beharko du eta beti ere gero programa zehatza

itxekitzeko tokia kontuan izan beharko du egileak.

Lanak, ekainaren 23ko eguerdia baino lehen honako helbidean aurkeztu beharko dira: udala@ituren.es edo udaletxean bertan.

Abarun aterpe lehiaketa

Uda badator eta abar ezberdinen bila dabiltza Aurtizko Abarun aterpetxeak.

Argazki lehiaketa bat antolatu dute eta "abarroa" adierazten duen argazkia emailaz, whatsapp edo facebookera bidali daiteke ekainaren 20a baino lehen. Parte hartzaileek Abarun aterpetxean egonaldi bat irabazteko aukera izanen du eta lehiaketa partekatzen dutenen artean ere bi otordu zozketatuko dituzte.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA AINARA MINDEGIA

Malerrekako eguna giro ederrean joan zen

Malerreka eguna ospatu zen herrian maiatzaren 28an. Goizean udalak omenaldi hungikarria eskaini zien 85 urtetik goitiko herritarrei eta joaldun zaharrei. Aritz Fagoaga eta Enara Ariztegik aureskua dantzatu zieten eta ondoren zapiak jarri zizkieten Segundo Elizalde, Simon Aiora, Juan Jose Sansiñena, Hilari Mutuberria, Margarita Legazkue, Meliton Legazkue eta Felixi Iparragirrerri. Migeltxo Makutso eta Maika Arizegiren zapiak bere familiakoek jaso zuten eta Juanito Elizalde eta Joxe Altxuk ezin izan zuten parte hartu. Eskolako ttikiek *Iturengo arotza* kantatu bertako eta inguruko herrietako dantzari, joaldun, trikitilari eta panderojoleek ere beraien saioa eskaini zuten. Urrozko Udalarri pasatu zitzaion lekukoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irrisarrira eta Sendavivara kanpaldiak

Ekainaren 2 eta 3an Pulunpa eskolako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleak Saldias, Labaien, Narbarte eta Legasako bertze ikasleekin batera Sendaviva eta Bardeetara bisita egin zuten. Hagitz ongi pasa zutela erran digute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mixelteneko zubia auzolanean konpondua

Azkeneko hilabeteetan lana gogotik egin dute herritarrek eta Aurtizko Mixelteneko zubiari itxura ederra eman diote, argazkian agerienez.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI EGUNEAN

Gazta onena eta txokorik politenak aukeratu dituzte

Baserrietan
Zortotzak eta
herrian
Eguzkilorek
irabazi dituzte
lehen sariak
eta gazta
onena
Azkuntzolatkoa
izan da

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberrri eguna ospatu zuten maiatzaren 29an, eta urte batzuk badira herrian barrena prozesioa egiteko ohitura berreskuratu zela eta aurtengoan ere, ha-

la egin zen. Ondoren, eta laugarren edizioan, gazta eta txoko politenaren sariak banatu ziren.

Txokorik politenaren lehiaketari dagokionez, bi modalidade daude, baserriak eta herria. Baserrien artean Zortotzako Beatriz Babaze suertatu zen irabazle eta herri mailan berriz, bi sari banatu ziren. Bigarren saria Juaneneako Asun Santestebani eman zioten eta lehendabizikoa, Eguzkilore etxeko Itziar eta Andrew Smitheri.

Gazta lehiaketara 10 gazta aurkeztu ziren. Bi sari banatu ziren, eta bigarren saria Seroinea etxeari egokitu zitzaion,



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Bestaberrri egun bikaina izan da aurtengoa ere. Erlijio ospakizunekin batera, herritarrek biltzeko eta gazta onenak eta txokorik politenak erabakitzeko egun polita.

eta Iker eta Ekaitz Loiar-
tek jaso zuten saria. Le-
henengo berriz Azkun-
tzolota baserriko Mari

Mar Bergarari. Ondoren
berendu goxoa presta-
tu zuen udalak herria-
rentzako eta txokolatea

hartu ondoren Olaia eta
Joxe Marirekin dantza
saioa izan zen. Egun po-
lita izan zen!

MAIATZAREN 28AN ITURENEN OSPATU ZEN MALERREKAKO EGUNEAN

Herritarrek partehartze handia izan zuten

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 28an Iturenen ospatu zuten Malerrekako Eguna eta partehartze handia izan zen herritarren aldetik, hurbil izaki. Egund polita eta jendetsua izan zen. Goizetik abesbatzan, dantzaritan, artisau koadrilla ere (Luis Mari Esarte, Miguel Arregi eta Xanti Hualde egur lanetan, Joxepa Loiarte eta Juan Mari Elizalde-ren taldeak taloak egiten, Maria Salanuevaren ukendu eta olioak eta Andrew Smithen postalak...). 10 joaldun ere joan ziren herritik. Paella egiten Txaro Elizalderen eskutik herri-

ko talde bat ere joan zen. Bazkalon-
doan, Joxe Mari Erasun eta Maritxu
Santxez aritu ziren trikitixa eta pan-
deroarekin giroa alaitzen, Muxiko tal-
dea ere aritu zen dantzan, eta mus-
txapelketan zubietarrak suertatu zi-
ren txapeldun: Txomin Hualde eta
Joxe Mari Etxekolonea (azken hau,
Jabier Santestebanen ordezkari joan zen).

Malerreka leihotik begira lehiake-
tan, LHko 5. eta 6. Mailakoei zuzen-
dutako Bertsopaper lehiaketan E-
goitz Bueno zubietarrak lortu zuen
lehen saria, *Aingeru itturri* bertsoa-
rekin.

FLASH

Hauteskunde mahaia

Ekainaren 26ko hauteskunde mahaiko presiden-
tea Aitor Agesta izanen da eta mahaikideak Aitor
Elizalde eta Fausti Juanikorena. Ordezkoak zein
diren Herriko Etxean kontsulta daiteke.

Errotako udako ordutegia eta Edorta Murua laguntzailea

Edorta Murua hartu du Udalak Maria Jexux Pe-
trikorenari laguntzeko uda partean errotan. Or-
dutegia ere aldatu dute. Ekainean 11:00etatik
14:00etara (astelehen eta astearteak itxiak) ego-
nen da zabalik, urte osoan bezala. Uztailean egu-
nero irekia 11:00etatik 14:00etara eta abuztuan
egunero irekia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00eta-
tik 20:00etara.

MALERREKA

GIZARTEA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 18AN

Malerrekako Gazte Eguna ospatuko dute Elgorriagan

Dama eta Katez taldeekin batera, talde sorpresa bat ere izanen da

Mattin LARRALDE

Malerrekako Gazte Asanbladak hilabeteotan gauzatzen ari den *Ta Malerrekan ze?* Jardunaldien baitan, Gazte Eguna antolatu du ekainaren 18an Elgorriagan, Elgorriagako Ostaturaren laguntzarekin.

09:00etatik 14:00etara zaldi irteera egingen dute Malerrekan herrietan barrena.

10:00etan herria ernatzera aterako dira trikitilariekin. 12:00etan *Gure kabuz ala hil* dokumentala eskainiko dute eta trikipoteoa ere iza-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Doneztebeko Dama (argazkian), Leitzako Katez eta talde sorpresa batek joko dute.

nen da eguerdian. 14:00etan bazkaria egingen dute Elgorriagako ostaturan. Bazkarirako txartelak 10 eurotan salgai daude Doneztebeko Titi Ostaturan eta Elgorriagako ostaturan eta

menuan entsalada mista, petxuga saltsan, postrea, kafea, eta kopa izanen dute. 17:00etan jolasak egingen dira. Arratsaldean eta gauez berbera izanen da Ezin-ke taldearekin eta

22:00etan afari berezia: sandwichada.

23:00etan kontzertuak eskainiko dituzte Dama eta Katez taldeek eta talde sorpresaren bat ere izanen da eguna borobiltzeko.

UZTAILAREN 1A ARTE

Argazki lehiaketa antolatu dute preso eta iheslarien alde

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan preso eta iheslarien sustengurako taldeek argazki lehiaketa antolatu dute. Uztailaren 1era arte bidai daitezke eta bi baldintza dira bete beharrekoak: A4 baino haundiagoa ez izatea, eta Euskal Herriari buruz izatea, «euskal preso eta iheslariak Euskal Herriara, etxera ekarri behar ditugulako», diote antolatzaileek. Argazkiak presotaiheslariaketxera@gmail.com helbidera bidali behar dira. Aukeratzaren diren batzuk, ostaturan eta bertze lekuetan paratuko dituzte, jendeak bozkatzeko. «Sei bozkatuena, sei euskal preso baititugu Bortzirietan, postalak bihurtuko ditugu».

Sampi Aragón S.A.



Zerbitzu ofiziala
DONEZTEBEN

T. 948 450 354 | Leitzako bidea, 41 - DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com

**Ford Tourneo
Courier EcoBost
9.490€tan**

Finantziak eskatu eta PIVE planean sartuz gero.



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 23TIK 26RA

Pilota eta aizkora izanen dira San Juan festetako protagonista

Igandeko patata tortilla lehiaketako irabazleak 100 euroko saria eskuratuko du

TTIPI-TTAPA

Beti bezala, ekitaldiz gainezka dator San Juan festetako egitaraua.

OSTEGUNA, EKAINAK 23

- 20:00etan Txupinazoa eta ohiturako zopak herriko ostatuan.
- 22:00etan San Juan suak.
- Gueuz dantzaldiak Txingudi Deejaysekin.

OSTIRALA, EKAINAK 24 SAN JUAN EGUNA

- 10:00etatik aurrera txistulariek alaituko dute herria.
- 12:00etan Meza nagusia, San Juan herriko patroia ohorez. Ondoren, udalak luntxa eskainiko du Herriko Ostatuan.
- 18:00etan Pilota Partidak. Jubenilak, lau eta erdiaren barrenean: Telletxea-Marietzkurrena. Afizionatuak, binaka: Exposito eta Marietzkurrena, Salaberria eta Medinaren kontra.

- Arratsaldeaz eta gauez dantzaldia Gabenara taldearekin.

LARUNBATA, EKAINAK 25

- 10:00etan Argi soinuak.
- 11:00etan herriko mus txapelketa.
- 14:00etan herri bazkaria trikitilarekin.
- Arratsaldeaz umeen parkea, karts eta gaztelu haizatuuekin.
- Arratsaldeaz eta gauez dantzaldia Txingudi Deejaysekin.

IGANDEA, EKAINAK 26

- 10:00etan Argi soinuak.
- 13:00etan aizkora apustua: Erasun Mindegien kontra.
- 18:00etan pilota partidak. Afizionatuak, lau eta erdiaren barrenean: Salaberria-Medina. Jubenilak, binaka: Telletxea eta Marietzkurrena, Apezetxea eta Gaskueren kontra.
- 20:00etan patata tortilla lehiaketa. Irabazleak 100 euro irabaziko ditu, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 30 euro. Tortilla dastaketaz gain, udalak herriarrentzako txistorra, gazta eta ardoa eskainiko ditu eta trikitilariak arduratuko dira giroa jartzeaz.



UTZITAKO ARGAZIAK

Aizkora apustua igande eguerdian izango da, baina umore ona, alaitasuna eta festa giroa lau egunetan.

ARKUPEAK

GIZARTEA → EDUKI BERRIEKIN

Webgune berria du Arkuppeak elkarteak

Ordenagailu eta telefono mugikorretarako egokitu dute



Fernando ETXEBERRIA

Arkuppeak Elkarteak webgune berria paratu du martxan. Gainera, ordenagailu eta tabletetarako egokitu dute eta horrela informazioa edozein tokitan kontsultatzeko aukera izanen da. Ordenagailuetatik www.arkuppeak.com helbidearen bidez sartu liteke eta telefono mugikorretatik berriz, arkuppeak.com

helbidean sartuta. Euskaraz eta gazteleraz dago eta bertan Arkuppeak Elkarteari buruzko albisteak, delegatuak nortzuk diren, boletinak, jarduerak, argazkiak... eta bertze hainbat kontu irakurri litezke. Azken orduko oharra zabalitzeko ere erabiliko dute.

PROPOSAMEN BERRIAK ERE BADAUDE

2017ko bidaiekin aurreproiektu bat aurkeztu dute

F. ETXEBERRIA

Eroski Bidaieko arduradun batekin Arkuppeak taldeak zuen bilera bat probestuz, bidaietako koordinatzaileak 2017ko bidaien aurreproiektu bat aurkeztu zuen. Urtero bezala bi bidaia egingen dira; printzipioz Portugal eta Gaztelara izan litezkeela aurrekusten dute. Italia, Frantziako Alpeak eta Balear Uharteak ere aukeren artean daude. Egun bateko bidaiei dagokienez, orain artekoak mantentzeko asmoa dago. Eta proposamen berriak ere badituzte: Bardeak, Pasaia, Larun eta Zugarramurdi, Bizkaiko kosta, Getaria eta Zarautz... Interesgarria litzateke bazkideek bisitatu ez dituzten tokiak proposatzea.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

33 bazkide joan dira Benidormeko bidaiara

Arkuppeak elkarteko 33 kidek gozatu dute 13 eguneko atsedenaldira Benidormeko Poseidon hotelean. Egondia bikaina izan da eta eguraldia ere lagun izan dute, egunero 17 eta 27 gradu artean izan dituzte. Bestalde, ekainaren 2an 139 kide joan ziren Galiziara, 72 plazako bi autobusetan. Avilesen jan ondotik, arratsaldeko zortziak aldera iritsi ziren A Coruña. Etxera bueltatzeko autobus istripu baten ondorioz, aurreikusia zegoena baino denbora gehiago pasa zuten Aritzera joan ezinda gelditu eta Orioraino joan eta berriro itzuli beharra izan zutelako.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Zizelkatze eta pirograbatu tailerrean lan dotoreak egin dituzte

Hiru hilabetez egin dute ikastaroa 8 ikaslek, Jose Ignacio Telletxearen gidaritzapean. Zizelkatzen eta pirograbatuak egiten aritu dira eta egindako lanen artean argazkian ikus litezkeenak daude, etxeen izenak dotore jarri dituzte egurrean. Esperimentzia aberasgarria izan da oso eta datorren hiruhilekoan ere segitzeko asmoa dute. Egur mota desberdinak erabili dituzte eta lanerako tresnak zorrotzen ere ikasi dute, emaitza bat edo bertze lortu nahi denerako. Maiatzaren 26an egin zuten ikastaroari bukaera emateko merendua. Zuzendaritzako bi kide joan ziren eta ikastaroan egindako lanak aurkeztu zituzten ikasleek.

BEINTZA-LABAIEN

Labaiengo Ostaturia eta etxebizitza alokatzeko lehiaketa atera dute

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo Udalak, lehiaketa atera du Labaiengo ostaturia eta etxebizitza alokatzeko. Proposamenak Beintza-Labaiengo udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko dira ekainaren 24ra bitarte.

Lehiaketa honetan parte hartzeko behin-behineko fidantza 300 euro da. Informazio gehiago Beintza-Labaiengo udaletxean aurki dezakezu. Udaletxeko ordutegia: astelehena eta ortziralea, goizeko 8etatik 11etara.



BORDALARREA

Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA

Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnesein@bordako.com



Zazpigarutze, 2 behea
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)
Tfnoa: 948. 45 17 46

Jakinarazten da: 2016ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe:

2016ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA		TRATAMENDU TASA	KONTZEPTUA	BILKETA TASA		TRATAMENDU TASA
	3 bilketa	2 bilketa			3 bilketa	2 bilketa	
	€/urteko				€/urteko		
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez.	66,52	59,86	46,32€	1. Hostala. 9 toki edo gutxiago	97,10	77,68	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk.
Zaborronzia 500 metrotik gora dauden etxebizitzak	27,49	24,74		2. Hostala. 10 toki eta 20 toki artean	128,34	102,68	
				3. Hostala. 20 toki baino gehiago.	158,85	127,08	
Merkataritza eta zerbitzuak			2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk.	Kanpinak eta Natur guneak.	211,30	169,04	
1. Profesionalen zerbitzu eta bulegoak	125,34	102,68					
2. Establezimendu komertzial txikiak	132,82	106,24		Bertzelako egoitzak (komentuak eta zahar etxeak)	66,52	59,86	
3. Supermerakto txikiak edo autozerbitzuak	192,10	153,68		Kulturako eraikuntzak	66,52	59,86	
4. Establezimendu komertzial handiak	256,68	205,34					
				Ikastetxeak	192,10	153,66	
Ostalaritza							
1. Ostatuak	128,34	102,68		Industria eta Tailerrak. 9 langile bitarte.	128,34		
2. Dantzalekuak	211,30	169,04		Industria eta Tailerrak. 10-30 langile bitarte.	256,67		
3. Jatetxea. 10 mahai, edo gutxiago	140,76	112,60		Industria eta Tailerrak. 10-30 langile bitarte.	513,35		
4. Jatetxea. 10 mahai baino gehiago	211,30	169,04					
Aterpetxeak				Erabilera eskusiborako edukiontzia	51,00€/ edukiontzi bakoitzeko.		
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	97,10	77,68					
2. Landetxea: 7 toki eta 12 toki artean.	128,34	102,68					
3. Landetxea: 12 toki baino gehiago.	158,85	127,08					

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu bikoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINZEKO EPEA

- 2016ko uztailaren 28an bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2016ko abuztuaren 31ra luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da. Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Malerreka, 2016ko ekainaren 10a
Presidentea,
Jon Telletxea Juanenea

GIZARTEA

MERKATARITZA → DENOK BAT FEDERAZIOA KANPAINA EGITEN ARI DA

Komertzio, zerbitzu eta ostatuak bere etorkizun beltzaz ohartarazten ari dira

Azken hamar urteotan 102 komertzio itxi dira Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

Denok Bat Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Merkataritza Federazioak maiatzeko azken astean eta ekainean gauzatuko den 'Nik herri bizi bat nahi dut, zuk?' kanpaina abiatu dute. Honen bidez eskualdeko herritar guztiei ohartarazi nahi diete "zein eginkizun garrantzitsua duten komertzioek, zerbitzuek zein ostalaritzak gure herrian, karriketan argia, poza eta bizia ematen baitigute".

Herritarrei ulertarazi nahi diete merkataritzagune handiko kontsumoaren ereduarekin jarraituz gero, karrikak eta herriak triste eta ilun geldituko direla. «Halaber,



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Eskualdeko komertzioak beltzez margotu ziren kanpaina hasteko.

elkartasuna adierazi nahi diegu azken urte hauetan gure herrian itxi behar izan duten komertzioei».

Izan ere, Denok Bat Federazioak bildu dituen datuak kezagarriak dira, Baztan Bidasoan azken 10 urteetan 102 komertzio itxi dira. Nafarroa mailako datuek

ere joera berdina dute. Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera, 1990ean 7.845 enpresa komertzial zeuden, 2006an 7.562 eta 2015ean 5.555.

Datu hauek eskuan abiatu dute 'Nik herri bizi bat nahi dut, zuk?' leloa duen kanpaina.

Maiatzaren 25 eta

26an kanpainaren lehen ekintza martxan jarri zuten. Egun horietan eskualdeko komertzio, ostalari eta zerbitzu-enpresek beren erakusleioak beltzez estaltzeko deialdia egin diete eta jasotako erantzuna oso positiboa izan da. Lesakan 67 komertzioek parte hartu dute, horie-

tatik 38 dira Lesakako zerbitzu elkarteko bazkideak. Donezteben 60 komertzioek hartu dute konpromezua, horietatik 41 dira Doneztebarrak merkataritza elkarteko bazkide eta Baztanen 96 komertzioek estali dituzte erakusleioak eta horietatik 57 dira Bertan elkarteko bazkideak.

Lehen ekintza esanguratsu honen ondotik kanpaina informatibo bat abiatu du Denok Bat Federazioak. Horretarako maiatza eta ekainean zehar astero karrikak eta dendak kartel informatiboz betetzen ari dira. Horietan eskualdeko komertzioen inguruko datu eta hausnarketak kaleratzen dituzte. Erraterako, Baztan-Bidasoaldean 1.360 pertsonen lan egiten dutela komertzio txikietan. Kanpaina hau, hedabide, sare sozial eta bukaerako bideo baten itxiko dute.

IRAILAREN 11RA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK ETA SARI EDERRAK IZANEN DIRA

Udako argazkirik onenak sarituko ditu aurten ere erran.eus webguneak

TTIPI-TTAPA

Ttipi-ttapako irakurleok, Xorroxin Irratiko entzuleok eta erran.eus webgunearen bidez eskualdeko aktualitatea segitzen duzuenok hamaika argazki aterako duzue uda honetan. Argazki onenaren bila, argazki lehiaketa antolatuta du aurten ere erran.eus atariak. Ttipi-ttapak hartzen duen eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goitikoei zuzendua dago.

Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute (argazkia non ateratu den zehaztu beharko da), originalak eta bertze

inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke, 300 pixeleko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute. Argazkiak bidaltzeko epea ekainaren 16tik irailaren 11ra arte irekiko da.


Lehiaketan bi irabazle egonen dira: lehenengo irabazlea zein izango den epaimahaiak erabakiko du eta bigarrena webgunearen erabiltzaileek erabakiko dute, irailaren 11tik 25era webgunean bertan botoa emanda. Irabazleak erran.eus atarian jakinaraziko dira irailaren 26an eta



sari banaketa urri hasieran egingen da.

Epaimahaiaren saria honako hau izanen da: Itzaltzun, Iratiko Oihanean dagoen Besaro Landahotelean asteburuko egonaldia bi lagunendako eta erabiltzaileen saria, Etxalarko Bentan 2 lagunentzako otordua. Horretaz gain, parte hartzen duten egileen artean, Baztango Zapareak produktuekin osatutako saskia zozketatuko da.

Gutik ZURA dokumentala aurkeztu dute



Basoaren,
zuraren eta
euskal
gizartearen
arteko
harremanen
balioa
gizarteratzeko

Jon Maia bertsoalaria da dokumentalaren gidoilaria, Juantxo Sardon argazki zuzendaria eta Peio Ramirez eta Oreka TX arduratu dira musikaz eta soinu bandaz eta Imanol L. Perotxena lesakarra komunikazioaz.



LEITZA

TAILERRA → MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK

Konposta nola egin ikasteko tailerrak antolatu dituzte

‘Ateraiozu barnean daraman konposta!’ lelopean

JM BARRIOLA

Mendialdea Mankomunitateak konposta egiten ikasteko tailerrak antolatu ditu ekainaren 15, 16 eta 17an. *Ateraiozu barnean daraman konposta!* da aukeratu duten leloa eta luarra edo konposta egiteko argibideak emateaz gain, beharrezkoa den materiala ere banatuko dute.

Ikastaroak egun, ordu eta auzo-konposta gune desberdinetan eskainiko dituzte. Ekainaren 15ean 18:00etan hasita Manuel Lasarteko auzo-konposta gunean izanen da lehenbizikoa eta 19:00etan Sagasti-

mearrean (Guratz Mendi Elkartearen ondoan). Ekainaren 16an berriz, 11:00etan Areko zubian, 18:00etan Gazpiluzulon eta 19:00etan Amazabalen. Bukatzeko ekainarean 17an 18:00etan Patxi Arrazolak konposta gunean eta 19:00etan Arakindegiko gunean egingo dituzte.

Ingurumena zaintzea guztion ardura da, eta auzo-konpostajeari esker hondakinak murrizten ditugu, garraioak eragindako kutsadura ekidin eta gure lurren emankortasuna hobetu. Hondakin organikoak etxeko hondarren %40 dira. Hori dela eta, materia organikoa birziklatzeak, ekintza xumea dirudien arren, eragin handia du. Horregatik herritarrei ikastarotara agertzera animatu nahi dituzte.



ARGAZKIAK: AMAIA IPARRA

Omenaldi beroa egin diote herritar eta lagunek Mikel Nieveri

Giroan lortutako emaitza nolanahikoa ez zenez, neurriko ongi etorria antolatu nahi izan zioten Mikeli Leitzako zikloturista taldeko lagunek. Herritar ugari bildu ziren bertan eta bizikleten perrillekin osatu zioten arkupetik sartu zen plazara Mikel. Dantzariak agurra dantzatu zioten, Aurrera Kirol Elkarteko kideek oroigarriak eman zizkioten eta lagun askoren txalo zaparradak jaso zituen Mikelek. Herriko bertso-lariak ere, Luzek eta Xabat Illarregik, merezitako bertsoak kantatu zizkioten.



ARGAZKIAK: EH MENDI ERRONKA

Auzolanaren erronka beste behin ere gaudituta

Emaitza borobila izan dadin, ezinbestekoa izaten da atzetik eta askotan isilean egiten den lana. Euskal Herria Mendi erronkaren kasuan ere halaxe da, 450 boluntario aritu dira lanean; ibilbidea seinatu, dortsalak banatu, jatekoa prestatu, hornidura gunean egon... asko izan dira egin beharrekoak. Horregatik, probaren antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie «ezinbestekoa izan delako haien parte hartzea guztia behar bezala prestatzeko».

EKAINAREN 23AN

Sanjuan bezperako ekitaldiak prest dituzte

JM BARRIOLA

Uda ate-joka dugu eta solstizioa ospatzeko tenorea iritsi da. Aspaldikoa da sanjuan bezpera ospatzeko ohitura eta urtero, jendetza biltzen da plazan ekainaren 23an. Egitaraua urterokoa izanen da, 18:30etan umeek ingurutxoak dantzatzeko dute plazan eta ondoren txistor opilak eta freskagarriak banatuko dizkiete gaztetxoei. 21:00ak aldera plazan herri afaria izanen da, lagunarte bakoitzak etxetik ekarriko du jatekoa. 00:00ak aldera suak piztuko dituzte.

EKAINAREN 18AN

20 sagardogiletik gora bilduko ditu zortzigarren Sagardo Egunak

JM BARRIOLA

Boluntario askoren lanari esker egiten den Sagardo Egunak, zortzigarren edizioa beteko du ekainaren 18an. 19:00etan hasi eta 21:00ak aldera arte luzatuko da. Sagardogile hauek etorriko dira: Gipuzkoako Sagardo Elkarteko Añota, Astarbe, Calonge, Iparragirre, Izeta, Lizeaga, Oiharte, Oianume, Ola, Petritegi, Satxota eta Zabala; Gorenatik Gar-

tziategi, Barkaiztegi, Isastegi eta Olaizola eta elkartetatik kanpo daudenetatik Oianumezar eta Arratzain. Nafarroako Toki Alai eta Martinxonea eta Bizkaiaik lehen aldiz Leartibai baserritarren kooperatibatik sagardo ekologikoa ekarriko dute. Herriko ostaturek pintxoak prestatuko dituzte plazan banatzeko. Ondoren Hesian taldeak kontzertua eskainiko du plazan.

AI SIALDIA → KIROL MANKOMUNITATEAREN ESKUTIK

Udaleku irekiak antolatu dituzte uztailaren 11tik abuztuaren 5era

Bi pertsona kontratatuko dituzte begirale lanetan aritzeko

Juana Mari SAIZAR

Udara gainean dugu eta aurtengoan ere herriko haur eta gaztetxoek primeran pasatzeko aukera izango dute udalekuetan. Uztailaren 11tik abuztuaren 5era arte, 11:00etatik 13:00ak arte eskainiko da zerbitzua. Interesa duenak Aresoko udaletxean edo eskolako zerrandan apuntatu beharko du ekainaren 21a baino lehen. Prezioa 60 eurokoa da eta seme-alaba bat baino gehiagok izena

ematen dutenean, bigarren edo hirugarren seme-alabagatik 45 euro ordaindu beharko dira.

BEGIRALE LANPOSTUAK

Zerbitzu hau eskaintzeko bi begirale kontratatuko ditu Kirol Mankomunitateak. Interesa dutenek Udalean edo Kirol Mankomunitatean eman beharko dute izena. Beharrezkoa izango da euskara maila altua (gutxienez B2 maila) eta aisialdi begirale titulua edo baliokidea izatea. Gorputz heziketan ikasketak izatea, zonaldekoa izatea eta hurrekin esperientzia izatea kontuan hartuko dituzte.

FLASH

Hipopresiboak eta zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa

Kirol Mankomunitateak hipopresiboak eta zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa antolatu du ekainaren 20 eta 22an, 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea udaletxean edo kirol mankomunitatean egin liteke.

Sanjuan gaua

Urteroko ohiturari eutsiz, sanjuan gaua ospatuko da herrian ekainaren 23an. Iluntzean herri afaria egingo da plazan eta ondoren suak piztuko dira, gainera salto eginez izpiritu txarrak uxatzeko.

Sanpedroetako ospakizunak

Baserriz baserriko eskea, afariak... sanpedroak ospatzeko ohitura aspalditik dugu herrian, azken urteetan zertxobait apaldu den arren. Aurten, ekainaren 25ean jarri dute hitzordua Lagunartekoek. Animatu zaitezte denok pestara!



UTZITAKO ARGAZKIA

Olazabal aita-semeak aurtengoan ere irabazle musean

Azken hilabeteetan hordago hotsik ez da falta izan Pake Toki Elkartearen. Bederatzi bikote aritu dira aurtengo txapelketan eta bukaerara arte lehian aritu dira. Azkenean Olazabal aita-semeek jantzi dute txapela, Xabi Gereño eta Iker Barandarrainen aurkako finala irabazita. Iazko irabazleak ere beraiek izan ziren, eta seguruenik azken urteetan txapela gehien lortu dituztenak izango dira. Zorionak! Aipatzekoa da finalaren aitzakian 50 lagun bildu afaritarako.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Korpus eguneko ohiturak mantenduz

Korpus eguneko ospakizunak egin ziren herrian. Aldare ikusgarria jarri zuten aurten ere Polaineneko etxean, oso ongi apaindua zegoen, dotorea benetan. Eskerrik asko.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 5EAN KONTZERTUA

Ongi eramandako hamar urte bete ditu Umore Ona Abesbatzak

Herriko emanaldiaren ondotik, Hernanin, Igeldon eta Kaskanten abestuko dute

paseoaneta bideo emaldia eskolako janglean.

Aurrera begira, ekainaren 19an Hernanin egunsentiak abestuko dituzte, ekainaren 25ean Igeldon eta uztailaren 17an Kaskanteko auroren bilkuran.

TTIPI-TTAPA

Aurten, hamargarren urteurrena ospatzen du Umore Ona abesbatzak eta ekitaldi berezi batzuk egingen ditu urtean zehar. Ekainaren 5ean, taldearekin abestutako partaide ohiekin batera besta egin dute, giro bikainean. Lehenik kontzertua eskaini zuten elizan, gero kantu poteoa, bazkaria Errekahaundi

HISTORIA

Denera 58 abeslari eta 3 zuzendari izan ditu abesbatzak urteotan. 2006ko urritik 2009ko abendura Igaratza Apezetxea izan zen zuzendari, 2010eko martxotik 2014ko urrira Nuria Colomer eta ordutik gaur egun arte, Eneko Amundarain, 25 urteko irundarra. Gaur egun 30 kide daude.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza, ekainaren 5ean elizan emandako kontzertuaren ondotik.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Goizukoop kooperatibaren lehen zuzendaritza batzordea

Maiatzaren 28an egindako batzar eratzailean ere herritarren partehartze handia izan zen eta honela osatua gelditu da Goizukoop kooperatibaren lehen zuzendaritza batzordea: Iñigo Elizegi da lehendakaria, Unai Loiarte lehendakariordea, Unai Miranda idazkaria, Maria Eskudero diruzaina, Juan Antonio Lekuona kontuhartzailea eta Xabier Otaño eta Igor Elizegi bokalak.



UTZITAKO ARGAZKIA

215 txirrindulari Iskibi BTT zeharkaldian

Ekainaren 5ean egindako Iskibi BTT zeharkaldian 215 txirrindularik parte hartu zuten. Zeharkaldia bukatzen lehenak Axier Otaño eta Arkaitz Iza izan ziren. Ibilbide laburra bukatu zuen lehen herritarra Oihan Zugarramurdi izan zen eta luzea Martin Etxeberría.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Goizueta eta Aranoko 60 urtekoen kinto bazkaria

1956an jaiotako kinto eguna maiatzeko azken larunbatean ospatu zuten. 50 urte egin zituztenean zapelak jaso zituzten opari eta orain, 60 urte egin dituztela, makilak. Bazkaria eta afaria izan zuten Umore Onan eta Bixente akordeoilaria izan zuten lagun.

GIZARTEA → EKAINAREN 5EAN

1.707 herritarrek parte hartu dute Aroztegiari buruz egindako herri galdeketan

Erroldaren %28ak parte hartu du eta horietatik %82,8ak ezezkoa eman dio proiektu urbanistikoari

TTIPI-TTAPA

Aroztegiari buruz Baztanen egin den herri galdeketan 1.707 lagunek parte hartu dute, erroldaren %28ak eta horietatik %82,8 proiektuari ezezkoa eman dio.

Honen aitzinean, Aroztegia eta Gero zer? Plataformaren erranetan, «Geroa Baiko gobernuak ezin du baztandarron aldarrikapenari bizkarra ematen segi-

tu». Balorazio positiboa egin du Herri Plataformak: «Baztanek argi eta garbi erran dio ezetz Aroztegiako proiektu urbanistiko espekulatzailerari, ezetz erran dio inposizioari eta ezetz erran dio herri lurren ebaskoari. Ezetz erran dio landa eremua metropoli edo hiri handien zerbitzura jartzeari. Ezetz erran dio baztandarren artean pribilegioak sortzeari».

Hain zuzen ariketa demokratikoa egin ahal izatearen garrantzia azpimarratu dute Joseba Otondo alkateak eta EHBilduk. Geroa Baik eta UPNk, aldiz, parte-hartze eskasa nabarmendu dute eta «frakasotzat» ere jo dute.

EH Bilduk erantzun die, «Baztanen, izanda-



Herria	Errolda	Parte-hartzea	Bai	Ez	Zuriak	Nuluak
ALMANDOZ	159	17	1	16	0	0
ANIZ	55	41	1	39	1	0
AMAIUR	217	93	1	87	4	1
ARIZKUN	467	131	13	117	1	0
ARRAIOZ	192	75	5	67	3	0
AZPILKUETA	151	50	21	26	3	0
BERROETA	99	45	1	43	1	0
ELBETE	218	52	20	32	0	0
ERRATZU	391	159	5	152	2	0
ELIZONDO	2.639	577	93	471	12	1
GARTZAIN	179	44	12	31	1	0
IRURITA	648	150	30	111	8	1
LEKAROZ	265	114	6	105	1	2
ORONOZ-M.	339	104	16	87	0	1
ZIGA	150	55	22	30	3	0
GUZTIRA	6.169	1.707	247	1.414	40	6

ko azken erreferendumean (Europar Konstituzioaren ingurukoa, 2005ean), biztanleen %32k parte hartu zuen, eta inork ez zuen ezbaian jarri», erranez. Gisa honetako aferetan

Europar egin diren bertzeko galdeketei pare ezarri dute Aroztegiakoa.

Miren Meoki, Lekarozko alkatearendako «garbi gelditu da Baztango herritarrek,

2009an lekaroztarrek egin zuten bezalaxe, ezetz erran diotela proiektu honi. Garbi gelditu da proiektu hau ez dela onuragarria Baztaneko eta ez dugula hemen nahi».

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

TOLDOAK, ESTOREAK ETA MOSKITERAK | ETXEA - MERKATARITZA - OSTALARITZA



GARAJEKO ATEAK



- Moskitera batekin euli eta moskitoetaz babestu
- Eguzkiaz babestu toldo batekin

M. 650 53 20 73

T. 948 58 14 18

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

BAZTAN

GIZARTEA → UDALAREN BERTINTASUN BATZORDETIK

Bestak errespetuz bizitzeko kanpaina sustatuko dute

Indarkeria sexistaren aurkako gida ere argitaratu du Udalak neska-mutiko gazteen artean banatzeko

TTIPI-TTAPA

Azkeneko lau urteetan bezala, Udalak aurreen ere Baztango herrietako bestetan indarkeria sexista desageraraztea helburu duen kanpaina jarriko du abian. «Emakumeon aurkako indarkeriarekin akitzea, jendarte osoaren ardura da eta jendartean eman nahi ditugun aldaketak ere gure herriko aisiardi eremuetan eta herriko bestetan is-

la izan behar dute». Ekainaren 6an egindako prentsaurrean eman dute kanpainaren berri Oihana Gallo Bertintasun teknikariak, Maite Iturre Udaleko bertintasun zinegotziak eta Koldo Uribe-Etxeberria Erratzuko alkateak.

Udalak luzatutako deiari erantzunez, urtero Baztango herriek eta besta komisioek bat egin izan dute *Eta jaietan zer? Jaietan errespetuz bizi gara* kanpainarekin. Alde betetik besten kartel nagusian logoa txertatuz eta bestetik bestetan kartelak edo bestelako euskarriak zabalduz. Baina aurrean, Bertintasun Batzordearen deiari erantzunez, kanpaina bestelako ekintzekin osatu nahi izan dute.

Hauetxek dira Bertin-

tasun Batzordeak ekainetik urrira bitarteko bestetan sustatuko dituen ekintzak.

- Nafarroako Gobernuak INAIK, Nafarroako Bertintasunaren Institutuak, bultzatutako kanpainarekin bat egin du Udalak. *Eta jaietan... zer? Jaietan errespetuz bizi gara. Ezetza beti da ezetz* da kanpainaren lema.

- *Indarkeria sexistaren aurkako gida* ere argitaratu du Udalak eta herriko neska mutiko gazteen artean banatuko dira. 2.000 ale argitaratu dira eta bertan indarkeria sexista identifikatzeko gako batzuk emateaz gain, erasoaren aurrean zer egin eta zerbait gomendio ere ematen dira.

- Ostatueta eraso sexisten aurkako kanpaina bat ere jarriko da

abian. Horretarako afitxa batzuk prestatu dira honako lemaekin: *Karrikak eta gauak denek! Bestetan errespetuz bizi gara. Eraso sexistarik ez!* Ostatueta modu ikusgarri batean jartzeko gonbidapena egingo zaie 45 ostatu baino gehiagori.

- Indarkeria sexistarik gabeko gunea. Elizondoko bestetan eta Baztandarren Biltzarra egunean Indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko du Udalak. Indarkeria sexistari aurre egiteko bitartekoak eskuratu dituen gunea litzateke eta herritarrek indarkeria sexistaren gaiaz kontzientziaztea du helburu.

Hortaz gain, honako helburuak ere baditu gune honek:

-Emakumeek bestetan

indarkeri sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzea.

-Babes eta elkartasun gune bat irudikatzea eta indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraztuko dituen erreferentzia gunea sortzea.

-Erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasoak dauken kasuetan erantzuna izango dutela ohartaraztea.

-Emakumeek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabetzea eta horretarako bitartekoak eta tresnak eskaintzea.

-Maitasun erromatikoa eredu zaltzan jarri eta plazerean oinarritutako harreman osasuntsuak bultzatzea.

Gune honetan Emagin elkarteak bi formatzaile izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oihana Gallo, Maite Iturre eta Koldo Uribe-Etxeberria, kanpainaren aurkezpenean.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ - MUGAIRI

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

GIZARTEA → ELIZONDOKO LORATEGI BATEAN

Konpostak lorategietan duen eragina aztertzeko ikerketa egiten

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean ari da Udala

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak elkarlanean eskaintzen duten *Ingurumen Agrobiologia* Masterra egiten ari den ikasle batek bere Master akabailako lana egiteko bertzerean artean

Baztan aukeratu du. Lan honen helburua auzo konpostagailuetatik eratorritako konpostaren erabileraren dibulgazio-tresna erraz baten diseinua eta abiaraztea da eta lan honetan elkarlanean ari dira Baztango Udala eta unibertsitateko ikaslea eta lan taldea.

Elizondoko erdiguneko belardi bat aukeratu dute bertako belarraren hazkuntzan auzo konpostaguneetako konpostak duen eragina aztertu ahal izateko. Udalak Nafarroako Uni-



UTZITAKO ARGAZKIA

Istripu simulakroak lantzen hasiak dira

Oronozko suhiltzaileak eta Elizondoko Osasun Etxeko zenbait mediku eta erizain elkarlanean hasiak dira istripu simulakro tailerrak lantzen. «Tailer hauen helburua gure arteko ezagutzak trukatzeko eta komunikazioa hobetzea da» aipatu dute Osasun Etxetik. Honela, auto istripu simulakro bat antolatzen dute, kasu klinikoak landu eta extrikajearen trebezia lantzeko helburuarekin. Simulazioa bukatzerakoan, iritzi desberdinak, esperientzi desberdinak, ondorioak eta bertzekoak eztabaidatzen dituzte. 2016 urtean lantzeko hiru saio programatu dituzte. Dagoeneko, bi egin dira, martxoan eta maiatzean, hirugarrena berriz, urrian antolatuko dute.

bertsitatearekin elkarlanean egindako ikerketa honekin hondakin organikoak kudeatzeko konposta sistema bulkatu eta lorturiko azken produktu edo konpost

honek gure baratze eta lorategietan duen eragina erakutsi nahi da.

Aipaturiko lorategi- an borts lursail markatu dira eta hauetako lauetan konpost kon-

tzentrazio ezberdinak bota dira. Hainbat hila- beteetan lursail haue- tan haunditutako bela- rra moztu eta pisatuko da beharrezko ondorio- ak atera ahal izateko.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitzak
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

126.000€

SAROB
ERAIKUNTZAK

info@sarobe.eus
www.sarobe.eus
629 687 171
mmstudio-k diseinatu
www.mmstudio.info - 651 776 998

BAZTAN

GIZARTEA → EKAINAREN 5EAN

Belateko baseliza zaharberritua inauguratu dute

Urdazubi-
Baztango
Donejakue
Bidearen
Lagunen
Elkartek
bultzatuta

TTIPI-TTAPA

Belateko Santiago baselizako aterpea berreskuratu, zaharberritu eta ekainaren 5ean inauguratu du Urdazubi-Baztango Donejakue Bidearen Lagunen Elkartek kideek,

Almandoz eta bertze zenbait herritarrekin batera egokitu dute Donejakue bideko baseliza.

Ramon Apezetxea Almandozko apezak be-deinkazioa eman zion, «garrantzitsuena ez da dirua, ilusioa eta lanabai-zik» erranez. 2010ean lanekin hasi zirenetik agertu diren XII. mendeko baselizaren arrastoak, txanponak, iltzeak edo balak ere ikusgai jarri dituzte baselizaren barrenean. Santiagoren irudia ere harriz egin du Cesareo Soule harginak. Baseliza bera egiteko ere, in-



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Belateko baselizaren inauguraziora herritar aunitz bildu zen.

guruan zeuden harriak bertzerik ez dituzte erabili.

Urdazubi-Baztango Donejakue Bideko Lagunen lanari esker, Iruñea arteko bide guztia (5 etapa) berreskuratua dago. Bide hau aunitz erabiltzen zen garai batean negu partean, Orreagatik baino, Otsondo eta Belaten barna xamurragoa izaten baitzen bidea erromesendako.

ARIZKUN, ERRATZU, AZPILKUETA ETA AMAIURREN

Ordutegi aldaketa kontsultetan

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 13tik aitzinera, Arizkun, Erratzu, eta Amaiurren osasun kontsultategiko ordutegiak aldatu dira. Arizkun, kontsulta astelehenetan 08:00etatik 15:20era, asteazkenetan 08:00etatik 11:30era eta ortziraletan 08:00etatik 15:20era pasatuko da. Erratzun, kontsulta asteartetan 08:00etatik 15:20era eta ortzegunetan 08:00etatik 15:20era pasatuko da. Amaiurren, kontsulta asteazkenetan 12:00etatik 15:20era pasatuko da.

GIZARTEA → UDALAREN ESKUTIK

Oinarrizko azpiegiturak konpondu dituzte maiatzean

Bideak
breaztatu,
konpondu eta
zabaldu dituzte
eta Oharrizen
arraildurik
zegoen zubia
konpondu dute

TTIPI-TTAPA

Azkeneko asteetan eguraldiaren laguntzarekin Baztanen hainbat lan egin dira. Alde batetik herri eta auzo batzuetarako bideak breaztatu dira, horien artean errepide nagusitik Zozaiarako bidea, Ziga-ko herrirakoa eta Azpilkuetako Zuaztoirakoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bideari zola ematen Azpilkuetako Zuaztoi auzoan.

Zuaztoiko bidean kune-tak ere egin dira. Bertzal-de, Bagorditik Orabide-ko errepidean autoak eta kamioiak gurutzatu ahal izateko hamaika zabalgunek ireki dira, horrek franko estua den bide horretan aisago

ibiltzea ekarriko du. Modu berean, Beartzungo Urruxkako bidean ere konponketak egin dira eta Lekarozko Balengo Berri alderdian Etxeko-ko zubia ere konpondu da. Oharrizen, arraildurik zegoen zubia ere

konpondu da. Gainera, koan hilabete hondarrean 2014ko uberroek hondatutako Halti Bentako bidea konpontzen hasiko da eta Karakotx-Parisenea, Xixperriko borda eta Uheneko bordako bideak ere bai.

GIZARTEA → SOS ALKERDIK BATZARRA EGIN ZUEN

Alkerdiko harrobiak berri aunitz eman ditu asteotan

Nafarroako Gobernuak bertan behera utz dezake 2013ko ustiaketa baimena

Iniigo IMAZ

Azken aldian Alkerdiko harrobiaren aferan berriak izan dira. Urte batzuk geldirik egon ondotik, 2012an Mármolles Baztan enpresak ustiaketa proiektu berri bat aurkeztu zuen. Proiektu berriari oniritzia eman zion UPN-ko Gobernuak 2013an, baina herritarrak ez ziren egoeraz jabetu 2014ko uztailearen 15ean leherketa handi batek izua eta kezka sortu zituen arte. Herritarren jakinminak eta haserreak batzar ezberdinetan islatu ziren. Horren ondorioz, SOS Alkerdi Plataforma sortu zen, herriko ondarea, ekonomia eta bizi kalitatea babesteko asmoarekin. Geroztik herritarren borrokak ez du etenik izan.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN TXOSTENA

Nafarroako Gobernuak jakinarazi du berriaz ere hasiera eman behar diola Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpe-

na berrikusteko prozedurari. Ebazpen horren bidez Mármolles de Baztan enpresari esleitu zitzaion Alkerdiko kontzesioaren luzapena eta, horrekin batera, enpresa horrek aurkeztutako ustiapen proiektua eta lehengoratzetza plana onetsi ziren. Nafarroako Kontseilua espedientearen baliogabetzearen alde agertu da, SOS Alkerdik eta bertako erakunde batzuek eskatu bezala. Halere, Gobernuak, harrobiaren kontzesioa luzatzeko ebazpena baliogabetu beharrean, espedientearen iraungitzean utzi du; ondorioz, berrikuspen espediente berri bat hasi behar da.

Gobernuak Aranzadi Natur Zientzien Elkarrekin, Kultura eta Kirol Departamentuaren aginduz, eremu hartan egiten ari den azterketaren ondorio batzuk aurreratu ditu: azterketa topografikoek erakusten dute Alkerdi 2 eta Zelaia 3 lezeak barrunbe berean daudela, eta paleolitoko labar-artean adierazpen gehiago aurkitu dira.

NAFARROAKO ARARTEKOAREN KRITIKA

SOS Alkerdik aurkeztutako eskariari erantzunez, Arartekoak Nafarroako Gobernuari nahiz udalari belarrondakoa eman die: «lezeak babesteko beharrezko-

ak diren neurri guztiak hartzea beharturik dugu». Izan ere, 2013an Nafarroako Gobernuak proiektu berria onartzerakoan, ez zuen Ingurugiro-inpaktu balioztatze berriketa egin. Arartekoaren erranetan, ikerketa berri hori egitera beharturik dago. Horretaz aparte, Ondare Kulturalaren babesa bermatzeko eskumena duen Kultura Sailak leherketetan oinarriturik dagoen ustiapenik ez du onartzen harrobi honetan.

SOS ALKERDIREN BATZARRA ETA BALORAZIOA

Kultur Etxean batzarra egin zen ekainaren 3an. Bilkurara hurbildu ziren 70 herritarren aurrean, Plataforma berrak Patxi Iriarte eta Malen Vilchesek harrobiaren aferari buruzko azken berriak aipatu zituzten. Malen Vilchesek Nafarroako Kontseiluaren txostena berri ona zela aipatu zuen, baina borrokan jarraitu eta lortutakoarekin ez konformatzeko deia luzatu zuen. Irurritako Luis Iriarte ere hurbildu zen batzarrera, etxe ondoan jasan behar izan zuen harrobiaren aferaz mintzatzerako.

SOS Alkerdi Plataforma harrobiaren ustiapenak sortu ahal izan dituen kalteei buruzko bere kezka luzatu du, izan ere «ez dakigu le-

herketa horiek Paleolitotik iritsi zaigun ondare bikainari inolako kalterik eragin dioten. Eta, agian, ez dugu inoiz ere jakinen». Plataforma uste du arreta eta kontu handiz jokatu beharra dagoela: «Behin daskigularik Zelaia III lezea, zeina harrobiaren barnean baitago, labar artea duen barrunbe batean kokatua dagoela, nola da posible inguruko harrobiko lanak egiten jarraitzea? Zer gehiago gertatu behar da Nafarroako Gobernuak geldiaraz dezan, kaute-laz, 2013. urtean enpresari 30 urterako eman zion luzapena? Orain arte hondatutakoak ez du konponbiderik, baina harrobiak ez du minutu bat ere gehiago segitu lanean».

Plataformaren iritziz, ez da aski leherketak bukatzea, izan ere, erauzketa lan guztiak geldiarazi behar dira harri eta espedientearen egoiki berrikusi arte. Bestetik, Ondare Historikoa-ri buruzko Legearen 40.2 artikulua aplikatu beharra dagoela; izan ere, lezean labar artea aurkitu denez, «Zelaia III, legeak aginduta, Interes Kulturalako Ondasun Bilakatzen da zuzenean. Legeak baime-na ematen al du harrobi lanak egiteko Interes Kulturalako Ondasun gisa sailkatutako eremu batean?».

URDAZUBI ELGARREKIN

Urdazubi Elgarrekin taldea baikor agertu da Nafarroako Kontseiluaren txostenaren aurrean. Talde honek gogoraz nahi izan du 2015eko uztaileko udal batzarrean mozio bat aurkeztu zuela, Azkar taldeko bi zinegotziren absentsia esker onartu zena. Gobernu berriari eskatzen zitzaion lezeetan egindako aurkikuntzak ezagutzera ematea eta 2013an emandako baimena errebisatzeko. Manu Aierdirekin egindako bileran, gan den urriaren 6an, gauza bera eskatu zitzaion Gobernuari. Bilera horretan Zelaia taldearen balio arkeologiko, ekologiko nahiz espeleologikoari buruzko ikerketa ofizial bat egitea eskatu zitzaion Aierdiri. Ordurarte, Gobernuaren teknikoek Zelaia taldearen balioa ukatu baitzuten, baina beti ahoz, inoiz ere idatziz.

Egoera honetan, Urdazubi Elgarrekin taldeak salatzen du Zelaia taldearen jasan duen espolioazioak ez duela atzera bueltarik izanen. Bi urte hauetan Zelaia taldeko sarrera betirako galdu da, bertako materiala txikitu eta harrobitik kanpo saldua izan baita. Horregatik, «ezin beste-koa da 2013an emandako baimena bertan behera uztea lehenbailehen».



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

SOS Alkerdiko batzarrak Alkerdiko harrobiaren inguruko azken berriak azaldu zituen.

ZUGARRAMURDI

KULTURA → EKAINAREN 18 ETA 25EAN

Dantza eskaintza zabala izanen da datozen bi larunbatetan lezeetan

Iruñeko Big Kick Blues eta Sestaoko Arriskugarri dantza taldeen emanaldiak

Margari eta Koro

Uda eta besta giroan sartu garela argi da, eta gure lezeetan eskeintzak egiten hasi dira: ekainaren 18an Iruñeko Big Kick Blues dantza

eskolak *The Cave of Blues* (Blues-aren lezea) emanaldi bat eskainiko du. Kontzertu tiki bat izanen da: hiru musikari kisulabearen ondoan eta, musika horrekin dantzak inprobisatuko dituzte. Arratsaldeko 7etan izanen da, eta sarrerak 7 euro balio du. Bertze aldetik, Sestaoko Arriskugarri Dantza Taldea, ekainaren 25ean arituko da, ilunabarreko 20:00etan *Petrikilo*-ak dantza ikuskuzina es-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Kepa Junkeraren bideoklipean Sorgin haizeak taldekoak

Sorgin haizeak taldeko batzuk jotak grabatu dituzte Kepa Junkerak egiten duen bideokliparendako. Berezia izanen omen da bideo hori, alde bateik 7 minutuko iraupena izanen duelako, eta bertzetik hainbat tokitatik bildutako jota dantza diferentak biltzen dituelako. Jendeak partikularki bidaltzen dituenak dira hoietako aunitz. Argazkian ageri dira bideoan parte hartu zutenetako batzuk.

kainiz. Hunen sarrera 3 eurokoa izanen da.

Hauteskundetako mahaia

Demokraziaren bes-ta dela diote batzuk, bai-

na bertze batzuentzat "izorratze-besta" izaten da: ekainaren 26ko hauteskundeak direla eta, hauek dira hauteskundemahaian egotekoak direnak: Lehendakaria

Sonia Agirre (bere ordezkaria Juan Migel Ariztegi da), eta bi bokalak Pedro Agerralde eta Joaquin Mortalena (hauen ordezkariak Koro Iraizoki eta Pako Antoni).

XARETA

GIZARTEA → EKAINAREN 5EAN URDAZUBIN

Logo eta web-orri berria aurkeztu dituzte Xareta Egunean

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 5ean Urdazubin egin zen Xareta Egunean aurkeztu dute eskualdearen irudi korporatibo eta web orri berria. Bertze hain-

bat ekitaldi egin dira Urdazubi, Zugarramurdi, Ainhua eta Sarako herrien bestan.

Axularren Txokora mendia ibilaldia egin ondorekin Kultur Etxean aur-



UTZITAKO ARGAZKIA


Urdazubi, Zugarramurdi, Ainhua eta Sarako udal ordezkariak, aurkezpenean.

keztu dituzte Xaretaren irudi berria eta web orria (www.xareta.eus).

Lau herri hauek komunean duten logotipo berriak herri horiek lo-

tzen dituen nortasun kultural sendoa islatzen du, beren herritarren loturek mugak gainditzen baitituzte. Nortasun korporatibo berriak sinbo-

lo gisa hartu du Larrun mendia. Logotipoa tipografia alaiarekin eta *Mugarik gabe* hitzekin osatzen da, lau herrien batasuna azpimarratuz.



KIROLA → APEZETXEAREN GIBELEKO PARTEAN

Rugbizaleak pozik Avironen garaipena eta Lagisquet-en etortzearekin

Miarritze eta Frantziako selekzioko entrenatzaile ohia SPUC ekiparen trebatzailea izanen da

Franck DOLOSOR

Herriko rugbizaleek poz pozik izateko arrazoiak dituzte egun hauetan. Baionako Aviron TOP14eko lehen mailarat igo da urte batez PRO-D2 bigarren sailean aritu behar izan eta. Senpertar ainitz joan zen Okzitaniako Tolosan jokatzen zen finala ikustera eta giro ezin hobean etxeratu ziren. Batzuek Lapurdiko hiriburu herriko etxean se-

gitu zuten gaitzeko ospakizuna. Baionako taldea izateaz gain, Ipar Euskal Herri osoko taldea dela erakutsi du berriaz Aviron Bayonnais multzoak, eta gure herrian ere segitzaile ainitz biltzen du.

Bertzalde, Patrice Lagisquet Frantziako selekzioa eta Miarritzeko taldearen entrenatzaile ohia Senpereko SPUC ekiparen trebatzailea izanen da Hervé Durquetyekin. Bi gizonak elgar ezagutzen dute eta harreman aski ona daukate Avironen elgarrekin jokatu zutenetik. Norbaiten laguntza beharko zuelarik bera deitzeko erran omen zion behin Lagisquetek Durquetyri eta solas hori ez du geroztik sekulan ahanzi. Telefonoz deitu eta proposamena



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Bestaberri arrakastatsua izan da aurten ere

Bestaberri eguneko ospakizunek arrakasta ederra izan dute aurten ere.

egin zion Durquetyk Lagisquet-eri eta berehala baietz erantzun zion. Astero bi saio egiten dituzte Senpereko rugbilariek baina enpresariadenez eta denbora gutti duenez Lagisquet-ek bakarrean parte hartuko du. Munduko koparen ondotik, entrenamenduak egiten lagundu du beti Lagisquetek, bertzeak bertze, Avirongo gazteekin. Orain, Senpereko koloreak defendatuko ditu.

Bestak ate joka

Jondoni Petrikari ospatuko diren herriko besten berri eman dute herriko gazteek. 25ean, mus lehiaketak jokatuko da. Gero, uztailearen lehenean zikiroa egiten dute 21:30ean. Biharamunean 12:00etan, txupinazoa izanen da, usaian bezala, urteko kirolari hoberenekin. 22:30ean Txapelpunk, Ze esatek eta Triki zio taldeen kontzertuak. Uztailearen 3an, igandea-

rekin herritarren eguna ospatuko da, herriko etxeak eskainiko duen zintur bustitzea eta herri bazkariarekin. 16:30ean besta komiteen arteko jokoak, ahate jokoak eta Eneko Labegueren kantaldia 20:00etan. Astelehenean 19:30ean Xiberotarrak taldearen kantuak preziatzen ahalko dira eta asteartean herriko saltzaileek eta ostalerrek apailatuko dituzten animazio eta dastaketak.

BURKAITZEA
JATETXEA - ERRETEGIA



Eguneko menua,
Plater konbinatuak,
Karta, Bazkariak,
Sandwichak...
Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com

**Pinturas**
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

**FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA**

pinturasalzuyet@yahoo.es

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



SARA

KIROLA → EKAINAREN 18AN, LARUNBAT GOIZEKO 9ETAN HASITA

Xoko txapelketako finalak jokatuko dituzte Pleka Trinketean

Sei sail baziren aurten eta lehen aldikoz neskek ere parte hartu dute

Joana GERENDIAIN

Heldu den ekainaren 18an, Pleka trinketean xoko txapelketako finalak jokatu dira. Sei sail baziren aurten eta gainera lehen aldiko neskei ideki eta arrakasta izan du bi talde egin baitira. Jende frangok parte hartu du txapelketa horretan. Finaleko partidak goizeko 9etan hasiko dira, ondotik zintzur bustitze bat izanen da eta zikiroa. Xeheta-

sun gehiago lortzeko edo erreserbatzeko trinketera deitu behar da: 05.59.54.22.06

San Josepe eskola

Ekainaren 25ean San Josepe eskolak bere besta egingen du kiroldegian. Arratsaldeko 6etan hurrek ikusgarri bat emanen dute eta ondotik denei idekia izanen den afari bat antolatua da. Xehetasun gehiagorentzat eskolara deitu behar da.

Kantaldiak elizan

Ekainaren 23an, ostegun gauarekin 9etan Sarako Erlauntza abesbatza miStoak kantaldi bat emanen du. Erlauntza duela bi urte sortu

den abesbatza da. Sartzek 5 euro balioko du.

Ekainaren 29an, Sarako Urtxintxak elkarteak antolatutik Urkoiko Mendi Xola abesbatza mistoak abestuko du.

Udako besta

Herriko Etxeko edantegiak Uda besta antolatu du ekainaren 24an. Arratsaldeko 7:30ean Kryz Yango taldea entzunez pintxoak jaten ahalko dira.

Bollanjerriberria Axuria Arterentzat

Bollanjerriberriaren etxabea, lehenago Petit Casino zen tokia, Axuria Arte elkartearen esku ematea erabaki du herriko etxeak. Elkarte-



ARGAZKIA: JOANA GERENDIAIN

Bollanjerriberrian Axuria Arte elkartearen erakusketa eta atelierrak antolatuko dituzte.

ak erakusketa eta atelierrak antolatuko ditu. Uztailaren 1etik goiti ide-

kiko da eta elkarte en-gaiatu da urte osoan idekia atxikitzea.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

.....

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

.....

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

JATETXEA-ERRETEGIA

MONTXO

OSTATUA-TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA
♥ Soinekoak
♥ Ilerako apaingarriak
♥ Poltsak
♥ Bisuteria
...
f Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Agoitz Iratzoki Altzugarai eta **Ana Altzuri Lasarte**, Lesaka eta Ituregoa, maiatzaren 24an.

Mikel Gotzon Lebron Etxenike eta **Mertxe Rekondo Ferrero**, Leitza eta Lesakakoa, maiatzaren 31n.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Aiuri Otaño Albistur, Goizuetakoa, ekainaren 3an.


Ximun Iribarren, Sarakoa, maiatzaren 25 ean

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Joxemari Zabaleta Alduntzin Tipule, Leitzakoa, ekainaren 3an, 50 urte.

Maritxu Oharriz Aldabe, Leitzakoa, ekainaren 1ean, 94 urte.

Felipe Rekarte Ibarra, Legasakoa, ekainaren 3an, 82 urte.

Jesus Mari Argain Larregi, Narbarkoa, ekainaren 6an, 70 urte.

Gregoria Galzagorri Jorajuria, Lesakakoa, ekainaren 6an, 89 urte.

Pierre Tapia, Sarakoa, maiatzaren 31n, 84 urte.

Jaime Agirre Mikeo, Doneztebekoa, ekainaren 7an.



Juliana

ECHEVERRIA GALARREGUI

Arizkunen, 2016ko maiatzaren 26an

Amatxi, zure begien dizdira, irribarrea, laztan goxoak, bihotz ona eta maitasuna beti gurekin izanen ditugu.

Mila esker, ez adiorik gero arte baizik.

BILOBAK ETA BIRBILOBAK



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

HERRI KIROLA → MAIATZAREN 28AN AZPEITIAN

50 kiloko txingekin marka berria egin du Xanta Sousa lesakarrak

Gazte mailako
Urrezko
Aizkora irabazi
du Ruben
Saralegi
leitzarrak

TTIPI-TTAPA

Urrezko Banakako Aizkolaria Txapelketaren finalak jokatu ziren maiatzaren 28an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Jaialdi honen barruan, gaur egun Euskadiko txapelak den Xanta Sousa lesakarrak, 50na kiloko txingekin marka berria egin zuen: 6 plaza eta erdi eta 5


zentimetro, edo metro-tan, gauza bera dena, 182,05 metro.

URREZKO AIZKORAKO TXAPELDUNAK

Urrezko mailako aizkolaria txapelketari dagokionez, lau aizkolaria aritu ziren lehian maila nagusian. Bortz urtez azpitxapelak izan ondoren, aurten azkenean txapela lortu du Dimas Aitzol Atutxa II.ak. 24 minutu eta 31 segundo behar izan zituen bizkaitarrak lanak burutzeko. Errezilgo Xabier Orbe-gozoa Arria V bigarren izan zen (26:30), hirugarren Jon Rekondo leitzarra izan zen (27:21)

eta Beizamako Eneko Otaño laugarren (28:08).

Gazte mailako finalak azken orduko alaketak izan ziren. Eneko Saralegi leitzarrak Larrea III izan behar zuen arerio. Baina bizkaitarrak min hartu zenez, finalerdietan bigarren izan zen Eloi Kortxero aritzekoa zen. Baina azkenean honek ere huts egin eta Oier Kañamare IV izan zuen finalerdi kontrario. Eneko Saralegi nagusitasunez irabazi zuen, 17 minutu eta 16 segundotan bukatu baitzituen lanak. Kañamaresek 19 minutu eta 11 segundo behar izan zituen.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

182 metro egin zituen Xanta Sousak Azpeitian, 50na kiloko txingak esku banatan zituela.

PILOTA → EKAINAREN 19AN LABRITEN

Doneztebe eta Bera aurrez aurre Herriartekoaren finalerdian

Uztailean
Labriten
jokatuko den
finalerako
txartel bila

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa-

ko lehen faseko hondar jardunaldia jokatu zen ekaineko lehen asteburuan. Honenbertzez, finalerdietako protagonistak erabaki dira. Herriarteko batean, Bera eta Doneztebe ariko dira aurrez aurre ekainaren 19an Labriten. Bertzean, Iruña eta Lizarra nor



UTZITAKO ARGAZKIA

Bera eta Leitzako pilotariak aurrez aurre, Eztegaran jokatu zen jardunaldian.

baino nor gehiago ariko dira ekainaren 18an. Eskualdeko bertze ordezkaria, Leitzak, kanpoan gelditu da.

Zizurren etxekoei bi partida irabazita A multzoan bigarren izatea lortu zuen Berak, Iruña-

ren gibeletik. Hirugarren partida irabazi balu Zizurrek beraiek sailkatu izanen ziren. Eta Ultzamak Leitzaren kontrako lau partidak irabaziz gero ere Ultzama-koak sartuko ziren, baina lehenbizikoa irabazi

zuten leitzarrak.

Doneztebe errazago sailkatu zen, multzo bura bezala, Lizarraren kontrako bi partida irabazita azken jardunaldian. Hain zuzen, Lizarra izan da bigarren multzoan.

MENDI LASTERKETA → EKAINAREN 4AN

Martinez de Estibarizek eta Kortazarrek irabazi dute IV. EH Mendi Erronka

683 lasterkarik parte hartu dute, horietatik 40 emakumeak

TTIPI-TTAPA

Behe-laino itxiarekin ez ziren beldurtu erronkari heldu zioten 683 lasterkariak. Goizeko 8etan abiatu ziren Leitzako plazatik, 67 kilometroko ibilbidea osatzeko: Pagozelai, Gaintza, Irumugarrieta, Unagako Putzua, Putzuzar, Iribaseko iturburua, Lekunberri, Iontza, Idiazabal eta Jaundegiko borda zeharkatuz, berriz ere Leitzara itzultzeko.

Oihana Kortazar eta Jokin Lizeaga ziren lasterketa hasi aurretik faboritoen artean behin eta berriz aipatzen ziren izenak. Helmugan ordea, pronostikoen erdiak bete ziren. Jokin Lizeagak, probaren hasieran nagusi izan bazen ere, 55. kilometroan lasterketa utzi beharra izan zuelako orkatileko minez. 15:00etan iritsi zen lehenbiziko lasterkaria helmugara, Julen Martinez de Estibariz (07:03:23). Bigarrena Iker Karrera izan zen, 07:03:38ko denbora eginez eta hirugarren gizonetako Ander Barreneetxea, 07:09:04ko denborarekin.

Emakumezkoetan berriz, Oihana Kortazar izan zen garaile 07:55:02 denborarekin eta aurrez ezarria zegoen errekorra 7 minutu hobetzea lortu zuen. Bigarrena Elena Calvillo izan



ARGAZIAK: ENERITZ IRAOLA

Mendi Erronkako argazki gehiago ikus ditzakezue Erran.eus-eko, argazki galerietan.

zen 08:36:11ko denborarekin eta hirugarrena Leire Martinez iritsi zen 8:48:33 denbora osatuz. Eskualdeko lehenbiziko lasterkaria, berriz, Unai Plaza baztandarra izan zen 07:45:10 denborarekin.

Beteranoen kategorian Iñaki Catalan helmugaratu zen lehenbizikoa 7:34:04 denbora eginez, bigarren Jose Luis Beraza 7:36:33 eta hirugarren 7:58:17. Kategoriatik honetan lehenbiziko emakumea Elena Calvillo izan zen 8:36:11ko denbora osatuz. Aurten, Euskal Herria Mendi Erronkarekin

batera Euskal Herriko Ultra Txapelketa ere jo katu zen, aldiberean. Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatutakoa izan zen eta garaileak, Mendi Erronka irabazi duten berberak izan ziren, Julen Martinez de Estibariz eta Oihana Kortazar.

OMENALDIAK ERE BAI

Momentu hunkigarriak ere bizi izan ziren lasterketa hasi aurretik. Goizean minutu bateko isilunea egin zuten antolatzaile taldeko hiru kideren familiarteko baina hil direlako berriki. Bazen bigarren nobe-

KILOMETRO BERTIKALA
Irumugarrietako igoeran, bizkorrenak **Carlos Garcia** (48:56) eta **Oihana Kortazar** (01:03:12) izan ziren.

dade bat ere lasterketa abiatu aurretik. Euskal Herriko sokatira selektzio kideak omendu zituzten, ofizialtasuna izan dutelako aldarrikapen nagusi eta horretan aitzindariak izan direlako, Euskal Herria mundu mailan ordezkatzuz. Garaikur bat eman eta Aurrerakoek aureskua dantzatu zieten.

ESKUALDEKOAK

- 19 Unai Plaza-Baztan
- 59 J.M. Ugartemendia-Leitza
- 60 Gorka Bermejo-Leitza
- 61 Oskar Ariztimuño-Leitza
- 68 Iñaki Zabaleta-Leitza
- 70 M.A. Iñarrea-Baztan
- 108 Eneko Andueza-Leitza
- 109 Josu Cestau-Leitza
- 111 Beñat Saralegi-Leitza
- 169 Igor Agesta-Donostia
- 179 Arkaitz Nieve-Leitza
- 193 Pello Canflanca-Leitza
- 230 Joseba Petrirena-Ituren
- 232 Ibai Berregi-Ituren
- 268 Adur Bernaola-Leitza
- 296 Mikel Saralegi-Leitza
- 324 Iñaki Sagastibeltza-Leitza
- 326 Jon Zabaleta-Leitza
- 333 M.R. Olano-Leitza
- 337 Rafa Alzate-Baztan
- 348 Iker Gomez-Leitza
- 409 Alex Salaberria-Goizueta
- 430 Iraitx Uriarte-Leitza
- 431 Harkaitz Delgado-Leitza
- 504 Mikel Azpiroz-Leitza
- 506 Eneko Zabaleta-Leitza
- 507 Miguel Olano-Leitza

ekainak 16 - 30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak



DONEZTEBE | 2016.06.25

Orioko kantari haundiak Donezteben kontzertua eskainiko du

Benito Lertxundiren lan berriaz (*Oroime-naren oraina*) gozatzeko aukera izanen da Ezkurra pilotalekuan, 22:00etatik aitzinera. Sarrerak aitzinetik 22 eurotan eros daitezke eta egunean berean 25 eurotan.

Dantzak



ZUGARRAMURDI | 2016.06.18-25

Dantza ikuskizunen lekuko bihurtuko dira lezeak

Ekainaren 18an *The Cave of Blues* dantza ikuskizuna eskainiko du Iruñeko Kick Blues dantza eskolak lezean eta hilaren 25ean Sestaoko Arriskugarri Dantza taldea ariko da lezean.

Tailerrak



BERA | 2016.06.25

Larruazalaren zainketa eta babesaz doako tailer praktikoak

Eguzkiaren aitzinean eta tratamendu onkologikoaren ondotik larruazala nola zaindu eta babestu behar den ikasteko doako tailerrak antolatuta dituzte Larun Haizpek eta Lirain Estetika Zentroak.

Tailerrak

DONEZTEBE

Ardo eta sagardoen eta Baztan-Bidasoko produktuen dastaketaz

Ekainaren 5etik 24ra ortzira- lero Cafe ostatuan. Izena: 615 730 792 / info@irauli.org.

BERA

'Larruazalaren zainketa eta babesa tratamendu onkologikoen ondotik eta eguzkiaren aitzinean' doan

Ekainaren 25ean Beralandetan, 10:00etan. Izen-ematea ekainaren 24ra arte: 948 625 717 edo lirainestetikabera@gmail.com.

LEITZA

Konposta egiten ikasteko

Ekainaren 15, 16 eta 17an.

ARESO

Zoru pelbiko eta hipopresibo ikastaroa

Ekainaren 20an eta 22an 18:00etatik 20:00etara.

Antzerkiak

GAZTELU

Txikiren bakarriketa

Ekainaren 17an Ion Martinez Esnaolarekin, 21:30ean Gazteluko ostatuan.

ARANTZA

'Azken eguzkilorea'

Ekainaren 19an 18:00etan plazan haurrentzat, Patata Tropikala taldearen eskutik.

DONEZTEBE

'Mucho ruido y pocas nueces'

Ekainaren 19an Firin Farandula antzerki taldearen eskutik, 19:30ean zinean.

DONAMARIA

'Eska, Eska, Eska, Hamaika Eska' antzezlan

Ekainaren 24an 20:00etan plazan, T Diferenciarekin.

Kontzertuak

SARA

Goraki abesbatza

Ekainaren 16an elizan 21:30ean. Sartzea 10 euro.

Erlauntza abesbatza

Ekainaren 23an elizan 21:00etan. Sartzea 5 euro (15 urtetik beheitikoek urririk).

Krys Yango taldea

Ekainaren 24an 19:30ean Herriko Etxeko Edantegian.

Mendi Xola abesbatza

Ekainaren 29an elizan 21:00etan.

LEITZA

Hesian taldea plazan

Ekainaren 18an 20:00etan.

SENPERE

Musikaren besta

Ekainaren 18an herriko frontoian, 17:00etan.

DONEZTEBE

Agorreta Musika Eskolakoak

Ekainaren 18an eliz atarian, 18:00etan.

Benito Lertxundi

Ekainaren 25ean Ezkurra pilotalekuan, 22:00etan.

PROPOSAMENA

LEITZA

Sagardo Eguna zortzigarren urtez

Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko hoge sagardogilek baino gehiagok parte hartuko dute ekainaren 18an zortzigarren aldiz Leitza egiten den Sagardo Egunean. 19:00etatik aurrera izanen da sagardoa dastatzeko aukera, tartean sagardo ekologikoa ere bai. Horrez gain, herriko ostatu eta tabernek pintxoak prestatuko dituzte plazan banatzeko. Eta eguna borobiltzeko Hesian taldeak kontzertua eskainiko du plazan.



ARIZKUN

Arizkun Rock

Ekainaren 24an Ze Esatek!
eta Ufestuek 23:00etan hasita
eta ondotik Tirri & Tery DJa.

Ospakizunak

LEITZA

VIII. Sagardo Eguna

Ekainaren 18an 19:00etatik
aurreraz plaza.

ELGORRIAGA

Malerrekako Gazte Eguna

Ekainaren 18an.

ETXALAR

Haurren Eguna

Ekainaren 17an eta 19an.

SUNBILLA

Asteburu kulturala

Ekainaren 17tik 19ra.

ESKUALDEA

Sanjuan bezpera

Ekainaren 23an.

SARA

St Josep eskolako besta

Ekainaren 25ean.

Dantzak

BERA

L'Esbart Dansaire eta Gure Txokoako dantzariak

Ekainaren 18an Altxateko
plazan, 20:00etan.

ZUGARRAMURDI

'The Cave of Blues'

Ekainaren 18an Iruñeko Big
Kick Blues dantza eskolaren
eskutik 19:00etan lezean.

Sestaoko dantza taldea

Ekainaren 25ean Arriskugarri
taldea 20:00etan lezean.

Azokak

SENPERE

Azoka larunbat goizero

Urte osoan elizako plazan.

Nire aukera



Maitena ILLARRAMENDI
Gaztelun bizi den titiriteroa

«Bizitza topera bizi nahi nuke, ametsetan bizi gabe»

Munduko txoko desberdinak izan ditu bizileku Maitenak «Manhattan, Costa Rica, Hendaia hondartza, Bertiz...» eta hamaika ogibide, «zerbitzari, argazkilaria, turismo arloan, artea- rekin zerikusia duten kontuetan... ibili izan naiz». Gaur egun, irakaslea da eta Gazteluko Ostatuan bizi da, bertako ardura- dunetako bat baita. Hango eta hemengo txokoak ezagutu badi- tu ere, ez doa urrutira gustuko txoko bati buruz hitz egiten has- ten denean, «Gazteluko ostatuko lorategian, zuhaitzetik zuhai- tzeraz zintzilikatu dugun hamakan bilin-bolonka egotea bezala- korik ez dago, pareko zelaien inguruan hegan dabilzan arra- noei begira. Batzuetan zeruan nagoela iruditzen zait».

Denbora librean, irudime- na dantzan jartzea maite du «duela pare bat urte etorri zitzaidan txotxongiloen ideia burura. Nire semeak, Xamaik, zazpi urte zituen eta gauetan iluntasunarekin beldurtu egiten zen. Laguntzeko, ipuin bat idatzi nion; *Gatz, titiritorro basatia*. Orain argitaratu berri dudan libu- rua, alegia. Pertsonaia horri bizia emateko, txotxongilo an- tzezlanaz sortzea erabaki nuen eta bideoak ere grabatu du- gu». Autodidakta izan da «bizitzan zehar ezagutu ditudan hain- bat pertsona eta esperientzia erreferentziatzat hartuta, nire bi- dea jorratu dut». Hurbilekoen laguntza ere izan du «Fidel, Txar- li eta Loreak, Bertizen elkarrekin bizi ginen garaian batez ere, eta baita Enkarni Genuak ere, txotxongiloen mundu honetan emandako pauso bakoitzean lagundu didate». Pixkanaka ikas- ten ere joan da «lehenengo txotxongiloak, papera eta kolare- kin egindakoak ziren, eskeletoa alantzez. Orain material ter- moplastikoarekin egiten ditut, oso arinak dira, testura aldetik finak eta oso erraz maneiatzen dira».

Asteburuko planik hoberena, «despertadorea ezkutatzea dudarik gabe. Asteazken zehar bueltara ibiltzen naiz kotxearekin, goiz esnatu eta Hendaia-Irun-Gaztelu, beti denbora eskasian presaka. Asteburuan, natura txutea, hondartza nahiz mendia, eta kotxea ahalik eta gutxien hartzea da gehien eskertzen du- dana». Planik ez edukitzea ere ederra izaten da». Helburua ba- karra da, «bizitza topera bizitzea, ametsetan bizi gabe».

«Bizitzan zehar
ezagutu ditudan
hainbat pertsona eta
esperientzia
erreferentziatzat
hartuta, nire bidea
jorratu dut»

SARA

Azokak

Astelehenero artisau eta
merkatarien azoka 09:00etan
plazan eta **ortziraleko** bertako
ekoizleen azoka, 16:30-20:30.

SUNBILLA

Artisau azoka eta gazta lehiaketa

Ekainaren 19an.

Bestak

BERA

Altxateko bestak

Ekainaren 17tik 19ra.

ARIZKUN

Sanjuanak

Ekainaren 22tik 26ra.

SALDIAS

Sanjuanak

Ekainaren 23tik 26ra.

ERRATZU

Sanpedroak

**Ekainaren 28tik uztailaren
2ra.**

DONEZTEBE

Sanpedroak

**Ekainaren 28tik uztailaren
2ra.**

SENPERE

Herriko bestak

**Ekainaren 25ean eta
uztailaren 1etik 3ra.**

Lehiaketak

ITUREN

Bestetako kartel lehiaketa

Ekainaren 23ra arte aurkez
daitezke.

ESKUALDEA

Euskal preso eta iheslarien aldeko argazki lehiaketa

Uztailaren 1era arte aurkez
daitezke *presoetaiheslariak*
etxera@gmail.com-era
bidalita.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mbleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mbleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE


- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mbleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. **646 774117.**

GOROSTAPOLO. 3 solairuko etxebizitza salgai, 250 m²koa, frontoi ondoan. 50 m²ko patioa. Beheko solairuan (100m²) harrera-gela, egongela eta sukaldea. 1go solairuan (100 m²) 4 logela eta 2 bainugela.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

50m²ko ganbara. Zahar-berritua, ikustea hobere-na. 155.000 euro. **600 693212.**

ETXEBIZITZAK

erosi

BERA. Etxe bat edo etxea eraikitzeke lurra erosiko nuke. **684 092142/ beraetxea@gmail.com.**

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESACA. Duplexa errentan emateko. Argitsua eta inguru polit eta lasaian. Pertsona bat edo birentzat. Mbleztatua eta ekipatua. Sukalde osoa. Gas berogailua. Terrazarekin. **658 943702.**

BERTIZARANA. 2 edo 3 logelako pisuak errentan emateko. Bertizko parkearen sarreran, eguzkitsuak eta estre-

natzeko. **650 691462**

ELIZONDO. 70m²ko pisua errentan emateko. Herriaren erdigunean, 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna, trastelekua eta garajea ditu. Aukera ona. Etxebitzak 6 urte ditu. Dena kanpora begira. **629 212439.**

BERA. Altxate karrikan pisua errentan emateko. 2 logela, bainugela konpletoa, sukalde-jangela handia terraza eta lorategirako irteerarekin, berogailu zentrala, hiri-gasa, dena kanpora begira. **650 981950/ 948 631658.**

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartu nahi dugun 2 neska arduratsu gara, mbleztatua eta egoera onean egotea. Biak lanean. 400 euro. **627**

086071 / 663 420685 (deitu 20:00etatik aitzinera).

LESACA. Errentan hartzeko pisu baten bila gabilta. **615 717679.**

ESKUALDEAN pisua errentan hartu nahi dut (Baztan, Malerreka, Bortziarik...). Bi txakur ditut eta beraz animaliak onartu beharko lirarteke alokatzeko pisuan. **651 513651.**

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Pisukide bila Bilbon. Lesakako 19 urteko bi neska gara eta pisukide bila gabilta. Hurrengo irailetik aurrera Bilbon, San Mames inguruan, 3 logelako pisu bat errentan hartzeko asmoa daukagu. Interesatuta bazaude jarri kontaktuan gurekin! **680 805480 / 680 708451.**

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESACA. Lokala salgai, bizitza egiteko aukerarekin. Aukera ona. **943 291768** (arratsaldean deitu).

LUR-EREMUAK

salgai

IGANTZI. 19.000 m²ko lur-saila borda batekin salgai. **650 831395 / 662 386899.**

ZERBITZUAK

zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Berako 20 urteko neska euskalduna ekain erditik aitzinera euskara, ingelesa, gizarte eta literaturako klase partikularrek emateko prest. Haurrak ere zaintzen ditut. **638 200575.**

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. **699 382673.**

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean esperientzia duen sukalda-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 27tik ekainaren 3ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 33 €

Zerri gizena
1,143 € kiloak.

Zerramak:
0,610 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16

1.koa 3,93

2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,24

1.koa 3,97

2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 140,00

idixkoak 238,00

Aretze nabarrak:

urruak 120,00

idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,03/3,13

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,40/6,40

8-10 kilokoak: 4,80/5,20

SANTESTEBAN TAILERRAK
Leizuko errep. DONETEBE T. 948 450 282 F. 948 450 857 donetebet@renault.es

 LATITUDE PRIVILEGE 2.0 DCI 150 CV 2012 urtekoa-47.000 km	 NISSAN NV200 1.5D 90 CV 2010 urtekoa	 NISSAN PRIMASTAR 9 PLAZAKOA 2006 urtekoa
--	--	--

ETA GAINERA:
OPEL AGILA 1.2 75 CV (50.000 km)
OPEL CORSA 1.2 80 CV (87.200 km)
KIA SPORTAGE 2.0D 80 CV
TOYOTA RAV4 2.0 130 CV 4x4

CITROEN CACTUS
HDI 90 CV
2015 urtekoa-34.000 km

KILOMETRO 0etan prezio ezin hobekak!!!

SALOU Apartamentuak errentan



Itsasora begira
paseo maritimoan, zentroan.
Asteburuak - Aste osoak. Aparkalekuarekin
Tel. 636291781 | salouapartamentuak@gmail.com

ria behar da. ☎948 599039.

MALERREKA. Logelak egiteko eta ostalaritzako lanetan aritzeko pertsona konprometitua behar da, lan egiteko gogo haundiarekin. Interesatuak bidali curriculumak: piriboro@gmail.com.

BERA. Beola Etxean dependienta bat behar da, frantsesez dakiena. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

ZUGARRAMURDI. Ansalas ostatuan goizez lan egiteko laguna behar da. Frantsesez pixka bat dakiena. ☎948 599022 (10:00-17:00).

LESAKA. Pertsona bat behar da kafetegian lan egiteko. Esperientzia eta sukaldean eskua duena. ☎679 828780 / 620 700964.

BAZTAN. Estetika dakien neska bat behar da denda batean. ☎948 581905 / 636 142890 (Eguerditan deitu).

URDAZUBI. Irigoienea Hotelean udan garbiketari lanak egiteko langilea behar da. ☎948 599267.

MALERREKA-BERTIZARANA zonalderako soroslea behar da. Bidali curriculumak: info@aqualur.es.

Garbiketari lanetan aritzeko, emakume bat lan bila. Garbiketari lanetan esperientzia duena. Etxeak garbitzen, portalak, ostatuak garbitzen... ☎662 356181.

LESAKA. Irene ile-apaindegian ile-apaintzailea behar da. ☎948 638186 / 610 256557.

BERA. Jatetxe batean sukalde-laguntzaile behar da eta fregaderan lanean aritzeko ere bai. ☎948 630967 (09:00-16:00).

ZUGARRAMURDI. Alizatenea jatetxean zerbitzaria behar da, esperientziarekin eta frantsesez dakiena. Asteburuetan abuztuan lan egite-

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

VW POLO DIESELA
4.800€

CITROEN C3 DIESELA
51.000KM
6.900€

NISSAN CABSTAR
40.000 KM
8.000€

Iruti-iruti errepidea
N-121-A 63 km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

GANIX
Tailerra



☎948 63 06 69
Iturandeta, 6 **BERA (NA)**

ko, eguerditan. ☎948 599187.

LANA eskariak

Emakumea interna moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Esperientzia handikoa adinekoak zaintzen eta Arreta Soziosanitarioa Etxean ikastaroarekin. ☎632 759640.

URDAZUBI eta ZUGARRAMURDI aldean, neska gazte batek haurrak zainduko litzuke, uztailean eta abuztuan ordubatzuz. ☎630 222681.

BAZTAN edota INGU-RUAN neska batek haurrak zainduko litzuke, sorosle lanetan (tituluduna), tabernako lanetan esperientziaduna, etxeak garbitzen... Ordutegiaren arabera. 19 urteko neska arduratsua, kotxe propioa. ☎689 046018.

32 urteko emakume arduratsua eta zintzoa zonaldean lan bila. Adine-



ARANTZAKO UDALA

Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua

Hasierako onespina

Arantzako Udak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako oso bilkuran, erabaki zuen Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua hasiera batean onestea. Horren xedea da gorde beharreko lurzoru urbanizazio produktibitate ertaineko eta familia bakarreko etxebizitza herrigunetik kanpokotarakoari dagokionez (10. artikulua) aldatzea. Eskara Unai Azpiroz Nazabal jaunak sustatua da.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 79.3 eta 74. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, espedienteak jendaurrean egon da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izan dute espedientearen Udalaren bulegoetan, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak egin ditzaten.

Arantza, 2016.06.06
Alkatea, Juan Miguel Almandoz



BEINTZA-LABAIEN

LABAIENGO OSTATUAREN ALOKAIRUA

Beintza-Labaiengo Udak, lehiaketa ateratzen du Labaiengo ostatua eta etxebizitza alokatzeko. Lehiaketa honetan parte hartzeko behin-behineko fidantza 300,00 euro da. Proposamenak Beintza-Labaiengo Udaleko idazkari-tzan aurkeztu beharko dira.

Epea ekainaren 24an akituko da. Informazio gehiago udaletxean aurki dezakezu. Udaletxeko ordutegia: astelehena eta ortziralea, 8etatik 11etara.


Tel: 948 450864 / udala@labaien.org
Alkatea, Jon Telletxea Juanenea

koak eta haurrak zaintzen esperientzia handia. Adinekoak edota haurrak zaintzen interesatua. ☎602 524401.

gai, 2 urtekoa. ☎606 019337.

MOTORRAK salgai

Remolkea salgai, bolketek hidraulikoarekin. ☎659 285620.



ANIMALIAK oparitzeko

Katakumeak opari. Bixi-bixiak, etxeko zoko guztiak miazteko prest! ☎652 750817.



ANIMALIAK salgai

Ahari mutur gorria sal-

Merkatu Ttikiko
iragarki gehiago
hurrengo orrialdean

ttipi-ttapa

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



Zorionak atabko **XABI** ekainaren 28an urteak beteko dituzulako. Muxu haundi bat zure printzesen partetik. Afari goxoa prestatu! Muxu pila bat!



Donamariako **EKAIN** eta **NAHIAK** ekainaren 21ean zortzina urte beteko dituzte. Zorionak eta aupa Osasuna!



Lesakako **NEREA** **OTXOTEK** urte-a bete du maiatzaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko sorginari Lesakako familiaren partetik.



Elgorriko **MAITANE** eta **JOKIN** **MARIEZKURREN** eta **AIALA** **BERTIZEK** urteak betetzen dituzte hilabete honetan. Ekainaren 10, 13 eta 24an, 10, 5 eta urte bat beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat zuen laguna eta anaia Aimarren partetik.




Etchalarko **HAIZEA** **ZELAIETA** **GORROTXATEGI** ekainaren 1ean 5 urte!!! Zorionak gure pottokina, infinito maite zaitugun denon partetik. Segi horrekin ongi portatzen. Muxu potoak! Garibok muxu erraldoia.



Egoik ekainaren 19an 4 urte beteko ditu eta **OLAIAK** ekainaren 26an 7 urte. Aunitz urtez Oronoz-Mugairiko anai-arreba politi hauei eta mila muxu potolo.



Legasako **ANDER** **ZELAIETA** **EULATEK** 6 urte bete ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Igantziko familiaren partetik.



Oronoko **MARKEL** **TORRES** **ALEMANEK** 9 urte beteko ditu ekainaren 25ean. Zorionak eta aunitz urtez txapeldun. Muxu bat familiaren partetik.



AITZIBER **GORROTXATEGI** **ZUBIZARREK** maiatzaren 30ean urteak bete ditu. Zorionak amatto! Munduko amarik onena zera. Segi horrela. Maite zaitugu. Haizea, Gari eta Aitatxo.



ALIZIA **OLAIZOLAK** ekainaren 2an urteak bete ditu. Zorionak aunitz eta eskerrik asko! Sunbilla lagunak.



JOANES **BERTIZ** **GRAGIRENA** sunbilla ekainaren 12an 6 urte bete ditu. Aunitz urtez txapeldun!!! Muxu asko Sunbilla eta Labaiengo familiaren partetik eta berexiki Urki, Ekiñe eta Joneren partetik!!!



Gure printzesitari, 2 urte beteko dituelako. Zorionak Lucia!



Ekainean **IBAI**, **JON** eta **AMATXI** **LOURDESEK** betetzen dituzte urteak. Zorionak!!!



Elgorriko **AIALA** **BERTIZ** **ETXEBERRIAK** ekainaren 24an urteak beteko du. Zorionak printzesa etxeko-en partetik, eta muxu haundi bat Aimarren partetik.



Donamariako **NAHIA** eta **EKAIN** ekainaren 21ean 8 urte beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa eguna! Ongi entrenatu pilota partidan arirezko! Muxuak Lesakako osaba eta izebaren partetik.



Berako **MARKEL** **ZELAIETA** **BERASATEGI** **JACKSON** 7 urte beteko ditu ekainaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztia partetik.



FERNANDITA **PETRIREN** 61 urte beteko ditu ekainaren 20an. Zorionak eta segi beti bezain gazte! Muxu bat Enaitzen partetik.



AINARA **FERNANDEZ** **TELLETXE** gure etxeko sorgintxoak ekainaren 25ean bi urte beteko ditu. Aunitz urtez Donamariako familiaren partetik eta berexiki zure anaia Ibairen partetik. Muxux haundiz, amz. Prestatu berendu goxogoxoa.



Sunbilla **KONSUELO** **IRIARTE** **IBARRAK** ekainaren 2an urteak bete zituen. Aunitz urtez familia guztia partetik eta nola ez Iraide eta Garaine iloben partetik. A ze lore polita izeba. Muxuak.



Sunbilla **atautxi** **PAKOK** ekainaren 13an urteak bete ditu. Aunitz urtez familia guztia partetik. Argazkian bezalaxe afari eder batekin ospatuko dugu oraingoan ere zure urtebetetze eguna. Muxuak Garaine, Iraide eta Ibai.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58 · info@ttipi.eus · erran.eus

DENETARIK
salgai

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritz-tza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma boro-bila. ☎948 585036.

Kotxeko bolan jartzen den **bizikleta-eramateko** salgai. Hiru bizikletarentzat. Berri-berria. Seinalizatze-ko panela barne. ☎610 213326.



5 bero-metagailu (akumuladore) salgai, Thermo Technik TTB markakoak. 50 euro bakoitzak. Beran jasotzeko. ☎687 337001.

DENETARIK
galdu-aurkituak

Giltza sorta aurkitu dute Alkagan, Karrika Nagusian. ☎662 243734.



ttipi-ttapa

(0034) 948 635 458
erran.eus

hemen agertu nahi duzu?

argazki soilak 5 euro
argazki bikoitzak 10 euro

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zure zortzina zure zortzina zure zortzina!!!

egin zure erosketa **erran.eus** en

II. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.
eus
Mendialdeko Albisteak

**Urrutira joan gabe,
esku-eskura dugunaz
goza liteke!**

**Eskualdeko paisaia, bestak,
txokoak, herritarak, animaliak...
ez ote dira urrutikoak
bezain ederrak?
Guk baietz uste dugu
eta horregatik,
eskualdean ateratako
UDAKo argazki ederrenaren bila
lehiaketa antolatu dugu.**

OINARRIAK

1. Ttipi-Ttapa zabaltzen den eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte hartu dezake.
2. Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak originalak eta bertze inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertu egingen dira).
4. Argazkiak ERRAN.EUS artxiboan gordeko dira eta antolatzaileak beretzat gordeko du jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatu-tako formularioaren bidez bidali beharko dira.

EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea.**
Ekainaren 16tik irailaren 11ra arte.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** Irailaren 11tik irailaren 25era arte.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko dira irailaren 26an.
- **Sari-banaketa:** Urri hasieran.

SARIAK

BESARO LANDAHOTELA
Itzaltzu - Iratiko Oihana
Tel: 948 890 350
www.besaro.es



EPAIMAHAIAREN SARIA:
BESARO LANDAHOTELAn
asteburuko egonaldia
2 lagunendako.

Info +



HOTEL BENTA ETXALAR
NA121 km60, Etxalar
Tel: 948 635 000
www.etxalar.com



ERRAN.EUSeko
ERABILTZAILEEN SARIA:
ETXALARKO BENTAn
2 lagunendako otordua.

Info +



BAZTANGO ZAPOREAK
Baserritik mahairat,
maitasunez eginak
amalurra zainduz



Parte-hartzaileen artean
BAZTANGO ZAPOREAK
produktuekin osatutako
saskia zozketatuko da.

Info +



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B
04/2016
Zk. 181972

**ZOZ
KE
TAK**

Martiko lote bat

Teodora Barrenetxe Dufurrena | ANIZ

Camelot Park - 2 sarrera

Alazne Diharasarri Organbide | URDAZUBI

Baztan Abentura Park - 2 tiket

Lourdes Mitxelena Bazterrika | LEITZA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Sagrario Bikondoa Etxeberri | ELIZONDO

Onddo ta punto | Kamiseta bat

Mª Cruz Oskariz Etxegarai | ERRATZU

Donostiako Aquariuma - 2 sarrera

José Luis Mitxelena Petrikorena | SALDIAS

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Ana Sarobe Mitxelena | IRUÑA

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Benar Intxaurren Arraras | ZIZUR NAGUSIA

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Nekane Zestau Polo | ELIZONDO

663.
aleko
irabazleak



urtxintxa
eskola



ELE MELE MAHAI-JOKOA

URTXINTXA ARGITALETXEA

www.urtxintxaeskola.org



2 sarrera

SARRERAK

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

2 SARRERA

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera

Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT
BUATXABAL
www.buatxabal.eu



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

**MU
SI
KA**



- Anai arrebak
Zorte ona opa dizut
- Bad Sound System
Aldaketa
- Glau Koma
Vol. 1

BONBERENEA
www.bonberenea.com

**DES
KON
TUAK
%**

intzuri
OPTIKA

LESAKA | %5, produktu guztietan



LEITZA | %5, gozotegian 30€tik gora



DONEZTEBE | %10, oinetakoetan

Urdi Bera
SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK

BERA | %20, urteko abonuaren matrikulan

ttipi-ttapa

LESAKA | %10, eskeletan



KAPRITXO

LEITZA | %10, 30€tik gora